txintxarri

2019-12-20 OSTIRALA / 1487. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Badatoz Gabonak, badatoz Olentzero eta Mari Domingi!

Abenduaren 24an iritsiko dira Lasarte-Oriara, hainbat lagunekin batera, zoriontasuna eta opariak banatzera / 4-5

TXINTXARRI

Ges
ASEGURUAK
Eguberri on!
Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

✓ Etxeko aseguruak
✓ Komunitateak
✓ Kotxeak
✓ Dendak
✓ Aurrezkiak
✓ Istripuak
✓ Enpresak
✓ Bizitza aseguruak
✓ Eta gehiago!

Pablo Mutiozabal kalea 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943 36 58 99 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria

2020 zoriontsua
opa dizuegu.
Eguberri on!

OGI BERRI

Kalitatea dastatu

Gure ogiak:

Cristal
Molde Cristal
Parisien
Txabola
Mendiko
Txapeldun
Leña ligth
Espelta
Vital
Artoa
Salud
Artoa zerealekin
Aleman
Molino
Verde
Espelta zerealekin
Ogicol
Kurkuma, intxaurrak eta mahaspasak

BETIKO

Bila zabiltzan hori... ziur hemen aurkituko duzula!

Pablo Mutiozabal 3 • Tel: 943 36 41 21 •20160 LASARTE-ORIA



Sua bizirik mantentzeko egurra

Mari Domingi

Aurten ere eguzki zaharra itzaltzen ari da eta elkarrekin berpizten lagunduko diogu, hori da hain zuzen ospatuko duguna: hil da eguzki zaharra, jaio da eguzki berria.

Eta hor ibiliko gara Olentzero eta ni, MariDomingi, Maritxuteilatuko, Xixuko eta Porrotxen laguntzarekin txondorra pizten, su handi horrek eguzkia berpiztu dezan.

Lehengo urtean eskaera asko jaso genituen, aspaldiko partez eskutitz guztiak ez ziren Olentzerori zuzenduak, nik ere mordotxo bat jaso nituen, ez dut ukatuko poztasunez bizi izan nuela, izena badu bada. Era guztietako eskaerak, desioak ziren: bizkleta bat, panpinak, galtzak, lanpostu duin bat, oporrak, galtzerdiak, liburuak, musika, erraustegirik ez jartzea, ipar martxako makilak, malabarrak egiteko pilotak…imagina daitekeen guztia eskatu zenuten (egia esan eskaera guztiak ezin izan genituen bete, dena ez dago gure esku, desio batzuk betetzeko zuen laguntza behar dugu).

Baina bazeuden askotan errepikatzen ziren eskaerak: beraien buruez arduratzeko denbora, zaintzak partekatzeko eta ikusgarri egiteko beharra, kalean lasai ibiltzeko eskubidea, beraien gorputzen jabe izateko beharra, enplegu eta pentsio duinak edukitzeko aldarria, zaintza lanak erdigunean kokatzeko premia, ikasgaietan ikuspegi feminista txertatzeko urgentzia, pertsonak merkantziak bezala ez tratatzeko iraultza nahia…..

Ederki!! Eta lanean hasi nintzen. Borroka feministarako adorea eta griña banatzen hasi nintzen. Eta horrek eragindako bi ondorio nabarmendu nahi ditut:

1-M8ko greba. Lasarten inoiz baino emakume* gehiagok hartu zuten kalea eta kalejira aldarrikatzaile ikusgarria osatu zen. Aurreko egunetan lan asko egin zen, askotan ikusgarri egiten ez den lana. Eta emakume askok, greba eta protesta egun horren beharra sentitu zuten eta bere egunerokotasunari planto egin eta kaleak hartu zituzten. Aupa zuek!!!!

Olentzero ere feminista zela eta berak greba egingo zuela esan zidan, berak ere borroka feministarako griña eta adorea banatuko zituela….ene!!!

- Segi zure lagunei, tartean Basajaunari, bere jarrerak zalantzan jartzea, hor daukazu zuk lan handia. Eta griña eta adorea banatu nahi badituzu, banatu eskaera hauek ulertzen ez dituztenei, beraien abantailei arreta jartzen hasteko eta bide batez hauei uko egiten hasteko -esan nion. Hasarretu egin zitzaidan, erradikalegia nintzela. Erradikaltasunak moderazio bat behar zuela….eta Basajaunarekin pote batzuk hartzera joan zen, Basandarea basoa zaintzen uzten zuten bitartean (oso ondo egiten omen du)

2-“Euskal herriko V.jardunaldi feministak”. Azaroan EHko mugimendu feministak antolatu zituen Durangon. *Salda Badago* lelopean eta bai, salda bazegoen, osagai askorekin urteetan zehar su txikitan irakiten aritu den salda. Durangon, 3000 emakumek* sua indartu, eta irakiten jarri zuten salda. Erre zituzten sorginen arbasoa naiz eta ongi dakit zertaz ari garen suaz ari garenean, sua suntsitzailea izan daiteke eta garbitzailea, askatzailea ere bai…Suak eguzki berria berpiztuko du.

Eta hortxe nire aurtengo opariak: su hori bizirik mantentzeko egurra. Erresidentzietako langileentzat “Zaintzaileak zainduz bizitzak zaindu”, garbitzaileentzat, eta sistema patriarkal, suntsitzaile eta zapaltzaile honi planto!! egin nahi dieten guztientzat. Urtarrilak 30ean “greba orokorra” deialdia dago eta egur horrek sortu dezakeen garra ikusi ahal izango da.

Eta nola ez dantza eta algarak. Sorginek jakin badakigu, ezin bada dantzatu ez da gure iraultza!!!!

Hurrengo zenbakia

txintxarri

Urtekaria
Informazio gehiago txintxarri.eus orrialdean edo sare sozialetan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Jose Lanchas.

Informatikoa
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 688 68 35 10
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

LAGUNTZAILEAK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Lehen oparia: Mari Domingi eta Olentzero menditik jaistea

Datorren asteko asteartean jaitsiko dira menditik Olentzero eta Mari Domingi, opariz betetako zakua eskuetan. Herrian barrena desfilatuko dute lehenengo, eta haur eta gazteekin elkartuko dira gero, Okendo plazan. Xixuko ahateak lagunduko die

Olentzerok eta Mari Domingik datorren asteko asteartean bisitatuko dute herria,

Txintxarri

Mari Domingi eta Olentzero menditik noiz jaitsiko zain daude herriko haur eta gazteak. Ez dute askoz gehiago itxaron beharko Eguberrietako lehen goxatua jasotzeko: datorren asteko asteartean jaitsiko dira mendi aldetik bi pertsonaia maitagarri horiek. Opariz –eta ikatz apur batez– betetako zakua ekarriko dute, etxeko gazteenen artean banatzeko, eurek lo egin bitartean.

Gaueko lanei ekin aurretik, ordea, agenda estua edukiko dute biek. Urtero legez, Lasarte-Orian barrena desfilatuko dute, Xixuko ahatea, Porrotx pailazoa eta Maritxu-teilatukZo lagun dituztela. Ttakun Kultur Elkarteak antolatuko du harrera ekitaldi bero eta goxoa. Loidibarren pilotaleku ondotik aterako dira, 16:45ean. Kuadrilla ederra bilduko da aurten ere: Mari Domingi, Olentzero, Xixuko, Porrotx, Galtzagorriak, arkumetxoak...eta hainbat pertsonaia mitologiko ere bai: Sorginak, Basajaun eta Basandere, Tartalo, Maritxu-teilatuko eta Lamiak. Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko kideak mozorrotuko dira pertsonaia horiez. Argi-zuziak ere eramango dituzte.

Ekitaldi nagusia, Okendon

Ordubete baino gehiagoz desfilatuko dute abenduaren 24an. Horren ostean, Okendo plazara joango dira, 18:00ak aldera, ekitaldi nagusia egiteko. Galtzagorriek eta arkumeek lagunduko dituzte Olentzero, Mari Domingi, Xixuko, Porrotx eta Maritxu-teilatuko oholtza gainera. Ikazkina eta Mari Domingi prestatu bitartean, beste hiru lagunek emanaldi koloretsua eskainiko dute: musika, dantza, magia, umorea... aspertzeko tarterik ez dute izango ikus-entzuleek. Oholtzara irteten direnean, herritarrekin hitz egingo dute; galdetuko diete ea zer moduz portatu diren.

Plazako oholtzatik jaitsi eta Mercero gune ingurura joango dira gero Mari Domingi, Olentzero eta Xixuko. Herriko neska-mutilen eskutitzak jasoko dituzte han, eta haiekin hitz egiteko tartea ere hartuko dute. 20:00ak arte luzatuko da ekintza. Hori eta gero ez dute atseden hartuko, ordea, mendira igoko direlako berriro, banatu beharreko opariak antolatu, bisitatu behar dituzten etxeen errepasoa egin eta luze joango den gauerako indarrak hartzeko.

Eguraldi txarra egingo balu, Loidibarrengo pilotalekuan egingo dute ekitaldi hori, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Abenduaren 24a prestatzen

Itxaronaldia horren luzea ez izate aldera, ekintza ugari egin dituzte egunotan herritarrek. Mari Domingi eta Olentzerori egingo dieten harrera prestatzen aritu dira. Amaraun Klubeko eta Gazte Klubeko kideak tailerrak egiten ari dira egunotan, etorrera prestatzeko. Abenduaren 23an izango da azkena, astelehenez, anbulategiko 2. solairuan. 11:00etatik 13:00era bitartean ariko dira ekitaldi berezi hori prestatzen. Taloak nola egin ere ikasi dute, Ttakunenean. Haur zein heldu, primeran pasa dute guztiek, eta dastatu dituzte tentuz eta mimoz egindako jaki horiek.

Txintxarri-k hitz egin du abenduaren 24ko protagonistekin. Lauek esan dute sekulako gogoak dituztela herrira jaitsi eta herriko gaztetxoekin elkartzeko, urtero bezala. Egia da lan asko egiten ari direla dena prest edukitzeko, baina ilusioak gain hartu dio nekeari, beste behin. Herritarrak gonbidatu dituzte ekitaldi horretan parte hartzera; edonork jarrai ditzake karrozak egun horretan. Ttirriki Ttarraka eskolako kideek musikatuko dute desfilea, eta Jalgune Elkarteko lagunek ere parte hartuko dute.

abenduak 24. 18:00etan hasiko da ekitaldi nagusia, Okendon. TXINTXARRI

Sasoeta-Zumaburu eta Landaberriko ikasleak, Xixukorekin

Ezusteko ederrak jaso dituzte Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetako haurrek asteon, klasera joan direnean, astearte eta asteazkenean, hurrenez hurren. Olentzeroren laguntzaile Xixuko ahateak bisitatu ditu bi zentro horiek. Egun gutxi barru etorriko dira herrira ikazkina eta Mari Domingi; horren aurretik, ordea, jakin behar dute zein opari nahi dituzten neska-mutilek. Ahateak eskutitzak banatu dizkie ikasleei, bertan idatz dezaten abenduaren 24an jaso nahi dutena.

Xixuko ez da esku-hutsik itzuliko Olentzero eta Mari Domingirengana; gaztetxoek egindako marrazkiak bildu ditu bisitak egin bitartean, beraiei emateko gero. Horren ostean, txantxa jolas batean aritu dira, giro ederrean. Berriro ikusiko dute elkar berriro Xixukok eta umeek, abenduaren 24ko desfilean.

Koloretako konfeti distiratsuarekin apainduko dituzte kaleak Galtzagorriek, abenduaren 24ko kalejiran. TXINTXARRI

Haurrek zein helduek parte hartu dute Ttakun KEren talo tailerrean. TXINTXARRI

Gabonetan, aspertzerik ez

San Tomas egunetik hasi eta Errege egunera arte, udalak eta herriko elkarteek antolatutako ekimenak izango dira Lasarte-Orian. Haur eta gazteei zuzendutako eskaintza izango da nagusi; helduek ere izango dute haien gozamenerako ekimenik

Txintxarri

Abenduko zubitik Gabonetako giroa somatzen da Lasarte-Orian. Kaleetako argiztapena, Ama Brigitarren komentuko jaiotza, komertzio eta tabernen apaingarriak edo Udal Musika Eskolako kideen kontzertua Gabonen aurrekari izan dira herrian. Eguberrietako ekimenek, ordea, ez dute etenik izango. Lasarte-Oriako Udalak *Bizi Gabonak Lasarte-Orian!* osatu du, udalak eta hainbat elkartek eta erakundek antolatutako ekitaldiekin. Kontzertuak, Eguberrietako haur parkea, antzerkia... Lasarte-Oriako haur, gazte, zein helduek egun berezi hauek herrian gozatzeko aukera izango dute.

Lehen ekintza, gaur arratsaldean izango da. Alboka Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du, 20:00etatik aurrera, Ama brigitarren komentuan. eta Gonbidatu gisa, Irungo ahots zurien Nayade abesbatza izango da. Gabon kantuez osatutako egitaraua aurkeztuko dute kaperara hurbiltzen diren entzuleen gozamenerako.

Ez da ekintza musikal bakarra izango. Abenduaren 28an, larunbatez, gospel kontzertua egingo dute Manuel Lekuona kultur etxean. Ariane Nsilulu zortzikoak tradiziozko gospel eta Shîne gospel doinuak ekarriko ditu Lasarte-Oriako aretora. Sarrerak 12 euro balio ditu.

Igandean, berriz, Eguberrietako haur parkeko ateak irekiko dira. Abenduaren 31era arte, haur eta gaztetxoek puzgarri, tailer eta egitarau zabalaz gozatuko dute, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Michelin Kirol guneko pilotalekuan, tenis pistetan eta Oriako pilotalekuan egongo da zer egin. Aurten espazio berri bat ere gehituko zaio parkeari, Zabaletako pilotalekua.

Parkea abenduaren 24an eta 31an arratsaldez eta abenduaren 25ean egun osoz itxita egongo da. Haur eta gazteek doako sarrera dute; helduek, berriz, euro bat ordaindu behar dute.

EGUBERRITAKO HAUR PARKEAZ GOZATU AHALKO DUTE HAURREK ABENDUAREN 31ERA ARTE

Urtero elkarte edo erakunde batek kudeatzen ditu sarrerak eta taberna. Aurten Oriarte Instituko gazteak egiteko horretan izango direla jakitera eman du udalak.

Haur antzerkiak ere izango du tartea egun horietan. Abenduaren 26an, Tomax pailazoaren abentura berria ezagutu ahalko dute etxeko txikiek, *Espien eguna*. Tomax eta Muxik andereño Koro aurkitu beharko dute, bahitu dute eta. Sarrera 3,80 eurokoa da.

Manuel Lekuona kultur etxean musika eta antzerkia izango dira. TXINTXARRI

Tailerra eta irteera

Ttakun Kultur elkarteko kideen eskutik bihar San Tomas azoka eta abenduaren 24an, Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera ekitaldia izango dira, berezi honetako beste orrialdeetan berri ematen dugun bezala.

Beste ekimen batzuk ere antolatu ditu elkarteak 9 eta 12 urte arteko gaztetxoak ez aspertzeko: koaderno tailerra eta Umeen Gabonetako Parkera txangoa, BEC aretora (Bizkaia).

Koadernoak egiten ikasi ahalko dute gaztetxoek. Abenduaren 27an eta 30ean egingo dira saioak 11:00etatik 13:00era, Osasun Zentroko eraikineko bigarren solairuan.

Bestalde, urtarrilaren 3an, BECeko Umeen Gabonetako parkera joango dira. Goizeko 09:30ean aterako da autobusa eta 18:30ean bueltatuko dira Lasarte-Oriara. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, haurrek bazkaria eta merienda eraman behar dute.

Ttakun Kultur Elkarteko bazkidek 17 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 20 euro.

Tailerreko eta irteerako izena ematea *aisia@ttakun.eus* helbide

Eguberritako Haur Parkean orduak egingo dituzte haur eta gaztetxo askok. TXINTXARRI

Errege Magoen kabalgatak emango die amaiera Gabonei. Aurten ibilbide aldaketa izango du. TXINTXARRI

elektronikoan, 695 785 392 eta 943 371 448 telefonoetan eta Ttakuneko bulegoan egingo da.

Bestelako ekimenak

Brigitarren komentuko jaiotza ikusgai egongo da Gabonak amaitu arte, baina ez da bakarra izango. Danok Kide elkarteak antolatutako jaiotza lehiaketako lanak eta sarituak ere izango baitute bere lekua. Lan sarituen erakusketa, Muebles Azpeitian egingo da; gainerakoak ikusteko San Pedro elizara jo beharko dute herritarrek. Lehiaketako sari banaketa ere egun hauetan egingo da. Hitzordua abenduaren 28an, 12:00etan izango da elkarteko egoitzan.

Kaleei alaitasuna eman eta herriko komertzioak sustatu aldera, Aterpea elkarteak Gabonetako kanpaina du martxan. Horren barruan, urtarrilaren 4an, larunbatez, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, txu-txu trena izango da herriko kaleetan zehar.

Erregeak Lasarte-Orian

Eguberri garaiari amaiera emateko Errege Magoen kabalgata izango da urtarrilaren 5ean. Egun osoko egitaraua izango da. Goizean, Errege Magoak Atsobakar zahar egoitzeko kideei bisita egingo diete. Bitartean, euren laguntzaileak Okendo plazan izango dira eskutitzak jaso edo eskutitza postontzira sartzen laguntzen. *Photocall*-a izango da aurtengo berrikuntzetako bat.

Arratsaldean, 16:15ak aldera, Brigitarren komentuko kaperan izango dira Erregeak. Ordu eta laurdenez haurrei harrera egin eta eskutitzak edo marrazkiak jasoko dituzte.

ERREGE KABALGATAKO IBILBIDEA MURRIZTU DA ETA KARROZA BERRIA EGON DAITEKE

Megaba elkarteak azpimarratu du 17:30ean, puntuan, ateak itxiko direla; 18:15ean, Erregeak eta desfileko parte-hartzaile guztiak Oriatik aterako dira erdialderuntz.

Aurtengo kabalgatan bi berrikuntza nagusi izango direla jakitera eman du Megabak: ibilbide aldaketa eta karroza berria.

Segurtasun kontuak direla eta, elkarteko kideek ibilbidea murriztea erabaki dute. "Udaltzainekin bildu ginen eta bilera asko egin ostean, aldaketak egitea adostu genuen", jakitera eman digute Megabako kideek.

Lehenik, hasiera puntua aldatu dute, Oriako pilotalekuan egingo zaie ongi etorria Erregeei. "Euria egiten badu, leku lehorrean itxaron ahalko dute desfileko kideek".

Oria Etorbidetik Kale Nagusira joango da jarraigoa. Bidean ohiko geldialdiak egingo dituzte, Ama Brigitarren jaiotzean eta komentuan.

Bidea jarraitu eta Tajamar biribilguneraino egingo du. Puntu honetatik aurrera dago beste aldaketa. Desfilea ez da Pablo Mutiozabal, Iñigo de Loiola eta Geltoki kaletik pasako, zuzenean Hipodromo etorbidea hartu eta Mercero plazara egingo du.

Bertan Jesus haurtxoa gurtu eta udaletxeko balkoira aterako dira Errege Magoak haurrei hitz batzuk egiteko. Desfilean berrikuntza bat ere ikusi ahalko dela aurreratu dute. "Ez dakigu denbora emango digun, baina gure asmoa karroza berri bat egotea da. Ahalegin guztiak egiten ari gara eta desfilerako prest izatea espero dugu. Ea dena ongi doan".

Prestakuntzetan daude beraz, Megaba elkarteko kideak eta hori dela eta, abenduaren 26an, 18:00etik 20:00etara bilera egingo du zuzi-eramaile eta parte hartzaileekin jantziak eta azalpenak emateko.

Izena emateko aukera izango da bertan eta aurreinskripzioa ireki dutela ere jakitera eman du Megaba elkarteak. Beraz, kabalgatan parte hartu nahi dute herritarrek, *cabalgata@lasarteoria@gmail.com* helbidera mezu bat igorri behar dute, non euren izena, abizena, adina eta kabalgatako zein postutan parte hartu nahi duten zehaztu behar dute.

Azkenik, aurten batzordeko kideen aldaketa egon dela-eta, aurreko batzordeko kideei eskerrak eman nahi dizkiete urte hauetan egindako lanarengatik. "Lan hau boluntarioa da eta beste elkarteen moduan, zaila da jendea animatzea. Horregatik, eskertzekoa da aurreko batzordeko kideek egindako lan handia. Orain, ikusle bezala euren iritzia eskaini ahalko digute", adierazi dute elkarteko kideek.

MUGICA & ABURRUZA
aseguru artekaritza, S. L.
*IBILGAILUAK
MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...
*BIZITZA ETA ERRETIROAK
*OSASUNA
*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK
*MERKATARITZA
*ERANTZUKIZUN ZIBILA
*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
*INBERTSIOAK
*PYMEAK...
Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943 36 22 75 & FAXA: 943 37 24 13
¿guverri on!
AUTOESKOLA MUGICA

Gaur hartuko du alkate kargua Agustin Valdiviak

Aste honetako bigarren ezohiko saioa egingo du udal korporazioak gaur: Agustin Valdiviak (PSE-EE) hartuko du Jesus Zaballos alderdikidearen lekukoa, azken horrek alkate izateari uko egin ostean. 10:30ean hasiko da inbestidura saioa, udaletxeko pleno aretoan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Agustin Valdivia (PSE-EE) izango da Lasarte-Oriako alkate berria ostiraletik aurrera, abenduak 20. 10:30ean hasiko da inbestidura saioa, udaletxeko pleno aretoan. Jesus Zaballos alderdikidearen lekukoa hartuko du orain arte Hirigintza eta Lanak batzordeko buru izandakoak. Joan den astean iragarri zuen Zaballosek alkate kargua utziko zuela; ostegun goizean eman zuen dimisioa, Valdivia bera eta Lourdes Acevedo –jarduneko alkate lanak egin ditu orain arte– alboan zituela. "Arrazoi pertsonalengatik" dimititzea erabaki zuela adierazi zuen Zaballosek.

Jesus Zaballosen kargu-uztea asteleheneko ezohiko saioan berretsi zuten. TXINTXARRI

Kargu-uzte hori astelehen honetan egin zuten ofizial, asteko lehenengo ezohiko udalbatzarrean. Zaballosek ekin zion saioari. Eskerrak eman zizkien udal gobernuko zein oposizioko kideei, PSE-EE alderdiari, familiari, lagunei eta herritarrei. Ongi egindakoak gogoan hartzeko eta gaizki egindakoak barkatzeko eskatu zuen orain arte alkate izandakoak. Hamahiru urte egin ditu udaletxean lanean. Horietatik zazpi, alkate gisa.

Jarduneko alkate Lourdes Acevedok hartu zuen hitza ondoren. "Alkate bat galdu dugu gaur, baina lagun bat mantentzen dugu; eskerrik asko egindako guztiagatik", nabarmendu zuen. Udalbatzarra bukatu eta gero, familia argazkia atera zuen Zaballosek alderdikideekin.

Oposizioko alderdien mezuak

Zaballosen dimisioaren harira, oharrak eta mezuak kaleratu dituzte oposizioko zenbait alderdik egunotan. EAJk "eskertu" egin du orain arte alkate izandakoak egindako lana eta alderdi jeltzaleari emandako tratua. "Alor askotan politikoki desberdinak izan arren, herriaren alde egin du lan beti Zaballosek; eskertzekoa da hori", azpimarratu du Jon Antxordoki bozeramaileak. Gaurko saioan eratuko den gobernu talde berriari galdegin dio "eskuak zabalik" lanean jarraitzeko prest egotea, "datozen hilabete eta urteetan etorriko diren erronkei heltzeko". Alderdi jeltzaleak "onena" opa dio alkate ohiari etorkizunerako.

EH Bilduk sare sozialak erabili ditu Zaballosi "zorterik onena" opa eta haren lekukoa hartuko duen Agustin Valdiviari ongietorria egiteko.

'Sexuei buruzko galderak' izeneko gida argitaratu du udalak

Gazteekin sexualitatea "ikuspegi zabal batetik" lantzeko tresna izatea nahi du udalak; urtarrilean hasiko da lanketa

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du *Sexuei buruzko galderak* gida argitaratu berri duela. "Gazteekin sexualitatea ikuspegi zabal batetik lantzeko tresna bat sortzea beharrezkoa da". Urtarriletik aurrera hasiko dira alor hori jorratzen, DBHko 1. mailako ikasleekin. Sexualitatea eta afektibitatearen inguruan eduki ditzaketen galderei buruz hitz egingo dute.

"Gidak ez du erantzunik ematen; pistak eskainiko dituen lan-tresna izango da", azaldu dute udaletik. "Gazte bakoitzari lagundu nahi dio bere bidea egiten, euren burua eta gainerakoena errespetatuz, beti ere". Gurasoek ere erabili dezaketen tresna dela gaineratu dute, seme-alabekin gai horiei buruz hitz egiteko.

Udalak gogorarazi du bulego bana dauzkala informazio eta aholkularitza sexualerako: gazteentzat bat, Gaztelekuan –ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara–; eta helduentzat bestea, Emakumeen Zentro Zibikoan –aurrez hartu behar da ordua, 943 363 958 telefonoan–.

Beterri Errotuz sortu dute, irabazi asmorik gabeko laneratze enpresa

Beterri-Buruntza eskualdeko sei udalek eta Erroak Sortu Gizarteratze Elkarteak parte hartu dute egitasmo horretan

Txintxarri

Beterri-Buruntzan hainbat azterketa egin eta gero, egileek ondorio nagusi bat atera dute: eskualdean bizi diren eta baztertze zein arrisku egoeran dauden pertsonak gizarteratuko dituen egitura "egonkor" bat behar dela. Horren emaitza da Beterri Errotuz SLU irabazi asmorik gabeko laneratze enpresa. Beterri-Buruntzako sei udalek –Hernani, Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga eta Urnieta– eta Erroak Sartu Gizarteratze Elkarteak sortu dute, elkarlanean.

Honako zerbitzuak eskaintzen ditu enpresa horrek: landa eta herri guneen garbiketa eta mantenura bideratutako zerbitzuak, ekonomia zirkularra sustatzen duten proiektuak –*Sagarberritu*, esate baterako– eta komunikazio zerbitzuak. Martxan dago dagoeneko: 2021. urterako aurreikusten dute zortzi langile edukitzea. Horietatik erdiek izan behar dute baztertze edo arrisku egoeran dauden pertsonak; sei hilabete eta hiru urte bitarteko kontratuak egingo zaizkie, gehienez.

Hainbat euskal presoren sormen lanak ipuin eta musika bihurtu zituzten IX. Errezitaldian. TXINTXARRI

Sormenari zubiak eraikiz, X. Errezitaldian

Harresi Guztien Gainetik taldeak prest dauka Eguberrietarako egitaraua: urtarrilaren 4an egingo du X. Errezitaldia. Horren aurretik, 'Giltzapeko ahotsak askatzen' kontzertua antolatu du, Jalgi Kafe Antzokian, abenduaren 27an. Ekintza gehiago iragarri dituzte

Txintxarri

Lasarte-Oriako artistekin zubiak eraiki nahi ditu Harresi Guztien Gainetik taldeak: *Zubiak eraiki sormenari* izenburua jarri diote X. Errezitaldiari. Datorren urteko urtarrilaren 4ean egingo dute emanaldia, larunbatarekin, kultur etxean, 19:30ean. "Hamar urte daramatzagu euskal presoen sormen lanekin Errezitaldia antolatzen; hamar urte itzala eta argiaren arteko zubia eraikitzen".

Eguberrietako egitarauan ekintza gehiago sartu ditu taldeak. Abenduaren 23tik aurrera, euskal presoek herriko haurrentzat idatzitako ipuinak jarriko dituzte herriko hainbat erakusleihotan. Erronkatxo bat prestatu dute: galdera bati erantzuten dioten herritarren artean, hainbat ipuin liburu zozkatuko dituzte.

Musika emanaldia Jalgin

Agendan apuntatzeko beste ekitaldi bat: *Giltzapeko ahotsak askatzen* kontzertua. Herriko hainbat rock taldek euskal presoek idatzitako poemak musikatuko dituzte. Jalgi Kafe Antzokian egingo dute musika emanaldi hori, abenduaren 27an, ostiralez, 19:00etatik aurrera. Harresi Guztien Gainetik taldeak iragarri du bost euroko laguntza-bonuak jarriko dituela salgai hurrengo egunetan, Eguberrietarako prestatu dituen ekitaldi horiek guztiak diruz laguntzeko.

Bestalde, *Kalera* ekimenak iragarri du mahaia jarriko duela Okendon larunbatean, hilak 21, 17:00etatik 20:00etara. Abenduak 31n, asteartearekin, manifestazioa egingo du, Okendotik, 19:00etan, euskal presoak etxeratzea eskatuz. Lasarte-Oriako Sarek ere eman du bi zitaren berri. *Atera bidera, orain presoak* lelopean, abenduaren 28an manifestazioa egingo dute, Donostiako Bulebarretik. 2020ko urtarrilaren 11n, aldiz, Bilbon eta Baionan manifestazio nazionalak egingo dituzte. Autobusak antolatu dituzte hara joateko, 14:30ean eta 14:00etan, hurrenez hurren. "Espetxe politika aldatzeko eskatzen jarraituko dugu 2020an", nabarmendu du Sarek.

USURBILGO UDALA

Protesta jendetsua Usurbilen

Gipuzkoa osotik etorritako hainbat herritarrek, lasarteoriatar ugari tartean zirela, bat egin zuten Usurbilgo Udalak antolatutako manifestazioarekin, joan den asteko ostiralean. *SOS Usurbil, erraustegia gelditu* lelopean, herri horretako kaleak zeharkatu zituzten eta herriko frontoian elkartu gero. Probaldi fasea hasi du Zubietako erraustegiak, baina herritarrek protestan segitzen dute.

TXINTXARRI

Kataluniari buruz solasean

Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok gonbidatuta, Kataluniako egoera politikoari buruz aritu zen *Berria* egunkariko zuzendari Martxelo Otamendi joan den larunbatean, Antonio Mercero gunean, Maider Galardi kazetariak gidatutako *Berriketan* saioan. Bertako prozesua nola ikusten duen azaldu zuen, eta Euskal Herrirako baliagarri izan daitezkeen ekarpenez aritu.

Urteko azken saioan, 'Kabitu ezina'

Aintzane Usandizaga idazlearekin solasean aritu dira Irakurle Txokoko kideak asteon; 'Kabitu ezina' ipuin liburua idatzi du lasarteoriatarrak; zortzi kontakizun jaso ditu lan horretan. 2019ko azken saioa izan da, baina ez ikasturtekoa; 2020an, gehiago

Txintxarri

Aintzane Usandizaga idazlea pasa da Irakurle Txokotik asteon. *Kabitu ezina* ipuin liburua ondu du lasarteoriatarrak; zortzi istorio jaso ditu lan horretan. Izenburuan igarri daitekeen bezala, ezinegona da liburuaren ardatzetako bat, irakurleek protagonistengandik jasotzen duten sentimendua: urduritasuna, nork bere burua ez ulertzea edo ez onartu nahi izatea... Horri buruz eta liburuaren beste hainbat ezaugarriz aritu da solasean herritarra, Uxue Alberdi idazleak dinamizatutako saioan, kultur etxean. Dozena bat irakurlek adi-adi entzun dituzte idazlearen gogoetak, eta baita galderak egin ere, landu duten liburuaren ale bana mahai gainean zeukatela.

Udaberrian argitaratu zuen *Kabitu ezina* Usandizagak. Handik bi hilabetera, ekainean, herrian aurkeztu zuen, lagunartean, Jalgi Kafe Antzokian. Uztail erdialdean Txintxarri aldizkariarekin izandako solasaldian, herritarrak zioen "oso polita" izan zela ekitaldi hori. "Liburua zuk idazten duzu, baina hainbat lagunek entzuten dizkizute ideiak, aguantatzen zaituzte dispertsa zaudenean... Lagun horiekin aurkezpena egitea eta Jalgin... Oso gustura egon nintzen". Proiektu gehiago baditu esku artean idazleak; Etxepare Saria jaso du berriki, Asier Iturralderekin batera, *Etxe honetan* album ilustratuarekin.

Aintzane Usandizaga idazlea, Irakurle Txokoaren saioan, asteartean. TXINTXARRI

2020an, saio gehiago

Astearteko saioarekin itxi du urtea Irakurle Txokoak, baina ez ikasturtea. Eguberriak pasa eta gero, 2020. urtean, jarraituko dute elkartzen. Klasiko bat jorratuko dute urtarrilean: Robert L. Stevensonen *Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia*, hain justu. Otsailaren 18an aldiz, asteartearekin, Mari Luz Estebanen *Andrezaharraren manifestua* izango dute hizpide. Idazle hori gonbidatuko du saiora Uxue Alberdik. Martxoko saioan Amets Arzallus etorriko da kultur etxera, *Miñan* liburuari buruz hitz egitera.

Urrian ekin zion 2019-2020 ikasturteari Irakurle Txokoak; Beñat Sarasola donostiarraren *Deklaratzekorik ez* eleberria aztertu zuten. Azaroko saioan, berriz, Fleur Jaeggy suitzarraren *Proleterka* lanari buruz hitz egin zuten.

San Tomas azoka, Eguberriei hasiera emateko era ederra

Txistorra, talo eta gaztain usainek beteko dute Okendo plaza abenduaren 21ean, larunbatez, arratsaldean

Txintxarri

Txerria izango da aurten ere San Tomas azokako protagonista. Haur eta helduen gozamenerako ikusgai izango da Okendo plazan, abenduaren 21ean, larunbatez, 17:00etatik aurrera.

Jatekoa ere egongo da. Taloa, txistorra, sagardoa eta gaztainak dastatzeko aukera izango da Ttakun kultur elkartearen karpan. Etxeko txikiek eurek egindako taloak jan ahalko dituzte talo tailerrari esker.

Herriko elkarteek ere izango dituzte postuak. Denetariko jaki, edari eta produktuak eskainiko dizkiete herritarrei.

Horrez gain, azoka girotzeko hainbat ekimen izango dira plazan. Institutuko gazteek bingo saioak antolatu dituzte. Xumela abesbatzak Okendon hasita kalejira egingo du erdiguneko kaleetan zehar. Bertsolarien kantua ere entzun ahalko da oholtzan.

Gorputza astintzeko Ttirriki-Ttarrakako kideen erromei doinuak izango dira eta ostean, plaza dantzak. Azkenik, Oaintxe in deu! txarangak kaleak alaituko ditu, iluntzean.

TXINTXARRI

Azken ipuin kontalari saioa

Pello Añorgak aurtengo ipuin kontalari saioei amaiera eman die, astearte arratsaldean. Manuel Lekuona kultur etxeko haurren liburuteagian bildu da 4 eta 6 urte arteko haurrekin, eta tarte ederraz gozatu dute guztiek.

Saio dinamikoa izan da; txaloak jo, ipuin zatiak errepikatu eta galderak erantzunez aritu dira entzule gazteak.

Lidergo politikoari buruzko hausnarketa, urtea bukatzeko

'Elkarbizi' egitasmoko azken saioa egin du Ganbo Iturri elkarteak, Mirentxun; Imanol Lizarralde gonbidatu dute

Txintxarri

Normalizazio prozesua eta lidergo politikoa. Gai horri buruz aritu dira Ganbo Iturri elkarteko kideak asteon, Mirentxun; urteko azken hitzaldia izan da hori, *Elkarbizi* egitasmoaren baitakoa. Historia Garaikidean doktore den Imanol Lizarralde gonbidatu dute ekimen horretara.

Antolatzaileen helburua izan da hausnartzea lidergo politikoak zenbateraino eragin dezakeen "indarkeriaren aurkako ekimen eta gizarte mobilizazioetan". Horren harira, Lizarraldek dio historiak "argi" uzten duela euskal gizartea mobilizatu egin izan dela, "euren ordezkari politikoen lidergoak deituta". Bere iritziz, euskal gizarteak indarkeriaren aurrean agertu duen jarrera epaitzerakoan, "ez dira kontuan hartzen herritarrak suspertzen lagundu dezaketen lidergoek jokatu izan duten rola". Dozenaka herritar gerturatu ziren asteazken arratsaldeko hitzaldi horretara.

'Elkarbizi' egitasmoko azken saioa egin du Ganbo Iturri elkarteak, Mirentxun. TXINTXARRI

Aitor Carrasco, beste urtebetez udalean lanean

Lasarte-Oriako Udalak, Gureak taldeak eta Atzegi elkarteak hitzarmen berria sinatuta, eta Foru Aldundiak babestutako 'Pauso Berriak' programaren bidez, Aitor Carrasco herritarrak beste urtebetez jarraituko du udal liburutegian lanean

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten duen *Pauso Berriak* programari esker, Aitor Carrasco herritarrak, udal liburutegian lan egingo du beste urtebetez. Liburutegiko lanekin batera, artxiboko laguntzaile gisa ere arituko da. Fitxak artxibatzea, zigiluak jartzea, gutunak gutun azaletan sartzea, liburu eta CDak alfabetikoki ordenatzea, fotokopiak eta liburuxkak taldekatzea izango dira, besteak beste, lasarteoriatarrak egingo dituen lanak.

2013. urteaz geroztik ari da Carrasco udal liburutegian lanean, eta beste hainbestez egoteko desira agertu du. "Oso pozik" agertu da kontratazio berriarekin. Liburutegiko lanak "gustura" egiten dituela azaldu du, eta hitzarmen berria ahalbidetu duten ordezkariei eskerrak eman dizkie; eskertza oroigarri bat eman dio udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezi.

Honek ere esker hitzak izan ditu Carrascorentzat, eta Lasarte-Oriako udal liburutegiko langileak Carrasco lankidearekin pozarren daudela azpimarratu du.

Udalak Carrascoren kontrataziorako 4.000 euroko diru laguntza eman dio *Pauso Berriak* programari.

Aitor Carrasco udaleko eta Gureakeko ordezkariekin. TXINTXARRI

Inklusioaren bidera batzeko deia

Asteazken eguerdian berritu dute Gureak taldearekin eta Atzegi elkartearekin hitzarmena, eta hitzordu hori baliatu dute inklusiorako deia luzatzeko. Lourdes Acevedo jarduneko alkate eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak gonbita luzatu die enpresa publiko zein pribatuei aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren alde egin dezaten.

Pauso Berriak programa dagoeneko 160 enpresatan ezarrita dago, eta guzti horien artean, Lasarte-Oriako Udala izan zen egitasmoan parte hartzen hasi zen lehenetarikoa.

Hitzarmena berritzeko ekitaldian, Fran Navarro Gureak elkarteko ordezkaria eta Ainhoa Ascasibar, Gureak Inklusio Fundazioaren ordezkariak ere izan dira. Horiek ere, eskerrak eman dizkiote Lasarte-Oriako Udalari, zazpi urtez jarraian erakutsitako konfiantzagatik, eta emandako laguntzagatik.

TXINTXARRI

Eguberriei, ongi-etorri musikala

Udal Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskaini dute asteon, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Lepo bete dute aretoa gazteen guraso, senide eta lagunek. Bereziki gustatu zaie hasiera, eskolako ikasle gazte batzuk oholtzara atera eta Eguberrietako zenbait kanta abesten hasi direnean. Instrumentuen txanda izan da gero: zeharkako flauta, gitarra, e.a.

TXINTXARRI

Klasiko bat, zirko bertsioan

William Shakespeareren klasikoaren aldaera berezia den *Julietas. Romeo circo* antzeztu du Markeliñe taldeak, Manuel Lekuona kultur etxeko oholtza gainean. Euren proposamenak kontakizuna mantendu arren, berezitasun ugari erakutsi dizkie kultur etxeko ikusleei. Kapela jokoa eta zirkua. Bi elementu horiek ez dira jatorrizko antzezlanean ageri, baina honetan ezinbestekoak dira.

Sasoian egoteko, euskara ahotan

ESKUALDEKO KIROLDEGIETAKO IKASTAROETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN DIHARDUTE

Urtea amaitzear dugu, balantzerako ordua izango dute eremu anitzetan, lan munduan bereziki. Bat baino gehiagorentzat baita eremu pertsonalean ere; egindakoaz edo bideratu gabe utzi ditugun proiektu horietaz hausnartu eta 2020ra begira jartzeko tenorean izango dira asko



Ikastaro bateko partaide guztiek edo ia denek (hiru laurdenetik gora) euskara ulertzen badute, ikastaroa erabat euskaraz edo nagusiki euskaraz eskaintzen da.

SERENARE PICE (UNSPLASH.COM).

Urte berriarekin erronka berriak marrazteko joera izaten da. Bizikalitate hobeagorako edo bizimodu zoriontsuagorako bidea marrazten hasten garenean planteatzen dugun erronka berrietako bat, sasoian egotea da edo norberak duenari eustea. Geure burua, osasuna zaintzeko zabalik ditugu urte osoan Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Kiroldegiak.

Instalakuntza guztiotan eskuragarri dugu ikastaro eskaintza zabala; lehorreko nahiz uretako jarduerak, adin tarte guztiei, eta kolektibo espefizikoei zuzendurikoak. Kiroldegiaz norberak egin nahi duen erabilerara egokituko diren prezio eta abonu mota ezberdinak eskura.

Ikastarootara kirol jarduera ezberdinetan trebatzera goaz bai, baina ezin ahaztu, hartuemanetarako eremu ere baditugu guneok. Zein da ahotan darabilgun hizkuntza igerileku nahiz gimnasioetara goazenean? Familia barruko transmisioan, Errenta Aitorpenean, autoeskolatan, Lanbide Heziketan edota merkataritzan egin izan duten moduan, Kiroldegietan ere euskararen erabilera sustatzen dihardute Buruntzaldeko udalek.

Kirola euskaraz programa

Udal instalakuntzotako entrenatzaile eta ikastaroetako parte hartzaileen gain dago noski, jarduerotan ahotan hartzen den hizkuntza-erabilera. Adina kontuan izanda, bi eremu argi desberdindu beharrak daude; batetik, 16 urtera arteko haur eta gaztetxoak. Kirol instalakuntzetako erabiltzaileek praktikatzen dituzten kirol jardueretan euskaraz aritzeko gai dira nagusiki, Buruntzaldeko udaletatik aipatzen dutenez, "Kirola euskaraz programa eta bereziki Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa abian jarri zenetik". Euskaraz garatzen dira kirol jarduerak haur eta gaztetxoak biltzen dituen adin tarte honetan.

Erabilera datuak

16 urtetik gorakoen artean, helduetara jotzen badugu alegia, anitzagoa da errealitatea. Euskara ahotan hartu eta kirol ekintzetan entzuna izateko hizlariak behar ditu noski. Jorratzen ari garen jardun eremu honetan. Euskara komunikaziorako bitarteko bilaka dezakete begirale edo entrenatzaileek eta banaka nahiz taldean sasoian mantendu edota giharrak lantzen diharduten kirolariek.

Buruntzaldea eskualdeko kirol instalakuntzetako ikastaroetako erabiltzaileen artean, profil ezberdinak daude hizkuntzaren ezagutzaren eta erabilerari erreparatzen badiogu; egunerokoan nagusiki euskaraz mintzo direnak, euskaraz eta beste hizkuntzaren batean dihardutenak, edota nagusiki euskara ez den beste hizkuntza bat ahotan hartzen dutenak izaten dira jarduerotara gerturatzen diren erabiltzaileak.

Errealitate anitz honek ezinbestean, ikastaroen antolakuntzan eragiten du. Zein hizkuntzatan jarduten dute kirol jardueretan? Ikastarook zein hizkuntzatan eskaini, nola erabakitzen dute? Jarduerotan baliatzen den hizkuntzak kontuan hartzeko moduko eragina du. Buruntzaldeko udaletatik aditzera eman dutenez, hizkuntza-erabileren araberako talde mota ezberdinak sortzen dira ikastarootan.

Buruntzaldeako udalak

Kirol instalakuntzetako erabiltzaileek praktikatzen dituzten kirol jardueretan euskaraz aritzeko gai dira nagusiki, Buruntzaldeko udaletatik aipatzen dutenez, "kirola euskaraz programa eta bereziki kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa abian jarri zenetik"

Irizpideak, tokiaren araberakoak

Hala, ikastaro bateko partaide guztiek edo ia denek (hiru laurdenetik gora), partaideen %75-100ak euskara ulertzen badute, ikastaroa erabat euskaraz edo nagusiki euskaraz eskaintzen da. Aldiz, partaideen erdiak baino gehiagok, hau da, %50-%75ak euskara ulertzen badu, nagusiki euskaraz ematen da ikastaroa edo elebietan, euskaraz eta erdaraz. Jarduera hauetan aritzeko osatzen diren taldeetan, partaideen erdiak baino gutxiagok (%0-50) ulertzen badu euskara, elebietan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz, edo nagusiki gaztelaniaz eskaintzen da.

Irizpideok herriz herri nola aplikatzen diren aztertzen hasiko bagina, errealitate anitzarekin, tokian tokiko hizkuntza erabilera desberdinekin aurkituko ginateke.

Hamaika ikastaro aukeran

Andoain
- Lehorreko ekintzak: kross training, aerobik, zunba fit, spining, pump, balance, aquagym, fitness, soinketa, yoga, GAP, Aerobik+GAP, Aerobik+Balance, Spining+Pump, Balance+Pump, Combat+Pump, Combat+Spining, Combat+Zunba Fit, K-stretch, hipopresiboak, emakume korrikalaria.
- Uretako ekintzak: igeriketa hastapena, hobekuntza, saio partikularrak.

Astigarraga
- Lehorreko ekintzak: aireko pilatesa, bungee airfit, pilatesa, bikarra zainduz, gimnasia 65+, hipopresiboak hastapena, mantentze hipopresiboak, fit pump, ziklo indoor, aerofit, zumba, strong by zumba, TRX, jump fit, HIIT, bosu xtreme, dantza modernoa, irristaketa.
- Ikastaro konbinaketak (aireko pilatesa, bungee air fit eta hipopresiboak izan ezik).

Hernani
- Fitness aretoko ikastaroak: Aerobika multifitnessa, zunba, mutilfitnessa, karatea, pilatesa, ziklo indoorra, indoor walking-a, hipopresiboak, korea, korea+luzaketak, erditu ondorengo emakumeentzako hipopresiboak+luzaketak, hirugarren adinekoentzako gimnasia.
- Konbinatuak: indoor walking+zirkuitu entrenamendua, pilatesa+zunba.
- Multijarduera: pilatesa, Indoor Walkinga, ziklo indoorra, hipopresiboak... Zirkuitu entrenamendua.
- Uretako ikastaroak:
  - Haurdunak.
  - 2003aren aurretik jaiotakoentzat: hastapena, mantentze igeriketa, aquagyma, aquagyma+pilatesa, aquagyma+indoor walkinga.
  - 55 urtetik gorakoentzat: mantentze igeriketa.
  - 65 urtetik gorakoentzat: hastapena, aquagyma, aquagyma+indoor walkinga.
  - Egokitua.
  - Osasuna hobetzeko ikastaroa, arazo eta lesio arinak dituztenentzat.

Igerilekuan nahiz areto barruan, Buruntzaldeko kiroldegietako eskaintza oparoa da.
MADDI BAZZOCCO (UNSPLASH.COM).

Lasarte-Oria
Mantentzeko gimnastika, entrenamenduen gida/banakako entrenamenduak/aholkularitza zerbitzua (>16); Kontzeju Txiki, nagusien parkeko makinak erabiltzeko aholkularitza (>60 urte); mantentzeko igeriketa, aqua gyma (<16); aerobika; zunba; body zunba; igeriketa gidatua; indoor txirrindularitza; pilates; body pump; tonifikazioa; stretching; aniztasun funtzionala dutenentzat kirol jarduerak. Igerian ikastea.

Urnieta
- Spinning, tonifikazioa, zumba, 3. adina, fitness aholkularitza.

Usurbil
- Areto jarduerak: spinning, pilates, pilates plus, 3. adina, zunba, total training, jumpfit, bizkar osasuna, hipopresiboak, a.f. gimnasia, yoga-mindfullness, yoga, mantenu gimnasia, helduentzako eskalada gunea.
- Ur jarduerak: ur entrenamendu gidatua, matropilates, aquagym, aquazunba, igeriketa hobekuntza, igeriketa hastapena, igeriketa entrenamendua.

Ordutegiak

Andoain
- **Allurralde Kiroldegia:** lanegunetan 7:00-22:30 (igerilekua 21:30ak arte, sauna 21:00ak arte), larunbatetan 9:00-20:30 (igerilekua eta sauna 20:00ak arte), igande eta jai egunetan 9:00-13:15.
- **Arrate:** lanegunetan 9:00-13:00/16:00-23:00, larunbatetan 9:00-13:00/16:00-20:00 eta igande zein jaiegunetan 9:00-13:15.
- **Informazio gehiagorako:**
943 30 01 47
allurralde@andoain.eus

Astigarraga
- Lanegunetan 8:30-22:30, larunbatetan 9:00-13:00/15:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.
- **Informazio gehiagorako:**
943 335 050
udala@astigarraga.eus

Hernani
- **Kiroldegiko igerilekuak:** lanegunetan 6:45-21:00, larunbatetan 9:00-20:00, igande eta jaiegunetan 8:30-13:00.
- **Gimnasioa, pistak, frontoia, squasha, sauna:** lanegunetan 6:45-21:30 (sauna 8:00-21:30), larunbatetan 9:00-20:00, igande eta jai egunetan 8:30-13:00 (sauna 9:00-13:00 artean).
- **Informazio gehiagorako:**
943 552 185
kirola@hernani.eus
kirola.hernani.eus

Lasarte-Oria
- **Maialen Chourraut:**
  - **Kiroldegia:** lanegunetan 7:00-22:30, larunbatetan 9:00-20:00 artean, igandeetan 9:00-13:00 artean.
  - **Igerilekua:** lanegunetan 7:00-12:30/14:00-21:30, larunbatetan 9:00-13:00 / 16:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.
  - **Sauna:** lanegunetan, 9:00-12:30/15:00-21:00. Larunbat, igande eta jai egunetan itxita.
- **Kirol gunea (Michelin):** lanegunetan 15:30-22:30, larunbatetan 9:00-20:00, igandeetan 9:00-13:00.
- **Informazio gehiagorako:**
943 376 182
kirolak@lasarte-oria.eus

Urnieta
- Lanegunetan 8:30-22:00, larunbatetan 9:00-21:00, igande eta jai egunetan 9:00-14:00.
- **Informazio gehiagorako:**
943 008 328
kirol@urnieta.eus

Usurbil
- Lanegunetan 7:00-12:30/14:30-22:00 (igerilekuaren itxiera 12:15ean eta 21:00ean), larunbatetan 9:00-21:30 (igerilekuaren itxiera 21:00etan), igande eta jai egunetan 9:00-13:30 (igerilekuaren itxiera 12:45ean).
- **Informazio gehiagorako:**
943 372 498
kirola@usurbil.eus

BURUNTZALDEA

Andoaingo Udala
Goiko plaza, z/g
20140 Andoain

Astigarragako Udala
Foru enparantza
20115 Astigarraga

Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani

Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria

Urnietako Udala
San Juan plaza, z/g
20130 Urnieta

Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

A. Manso eta A. Martin, urteko kirolari onenak

Aitor Manso Karting gidariak eta Ainhoa Martin igerilariak Lasarte-Oriako V. Kirol Galan jaso dute omenaldia. Mansok Euskadiko txapelketa irabazi du behin baino gehiagotan; Martinek domina eta errekor ugari pilatzen ditu Euskadi zein Espainia mailan

Maitane Aldanondo

Aitor Manso eta Ainhoa Martin kirolariak Agustin Valdivia alkate ordearekin. TXINTXARRI

Aitor Manso eta Ainhoa Martin dira 2019ko herriko kirolari onenak. Bizilagunen proposamenen artean Kirol Batzordeak aukeratu ditu biak eta ekitaldi xume batean hala izendatu dituen oroigarria jaso zuten larunbat eguerdian. Jesus Zaballos alkatearen lekuan, Agustin Valdiviak aurkeztu zuen V. Kirol Gala eta berak izan zuen bakoitzaren merituak azaldu eta sariak emateko ardura. Biak ala biak "irmotasunaren, ahaleginaren eta diziplinaren eredu" eta "praktikatzen duten kirolarekiko grinak sortutako konpromisoaren adibide" direla adierazi zuen agintariak, baita txalotu ere helburuak lortzeko egindako ahalegina, frustrazioa gainditzen jakinda.

Aitor Mansok hunkituta jaso zuen saria. Kartinga ahalegin fisiko eta mental handia eskatzen duen kirola dela nabarmendu zuen: "Beti %100a eman behar duzu, aurkariak ondo prestatuta baitaude". Garestia ere bada, urrutira joan behar izaten baitu lehiatzera, babeslerik ez du eta "horregatik ezin ditut gauza asko egin". Edonola, bestelako babesa ematen dioten lagunak eta senideak izan zituen gogoan bere eskertza hitzetan, bereziki, Jose Manuel aita, "beti ahal duena egiten du hiru onenen artean egoteko eta lan ona egiteko", esan zuen ahotsa eteten zitzaiola.

4 urterekin hasi zen kartingean eta 8 urte zituela irabazi zuen lehen saria. 2012an kart bat erosi eta Euskadiko Txapelketa irabazi zuen bost urte jarraian, baita Kantabrian ere 2015ean. 2017an ez zen Euskadiko Txapelketarik egin, beraz, Gaztela eta Leongoan parte hartu zuen, bigarren sailkatuta. 2018 eta 2019an, berriz, hirugarrena izan da. Arantza bakarra du Mansok, Espainiako txapelketa ez parte hartu izana duen kostuagatik.

Martin "arraina uretan mugitzen den kirolaria da, edo bere berezitasuna kontuan izanda, igela bezala", txantxa egin zion Valdiviak, baita gogora ekarri kirolariaren aldeko proposamenak jasota zekarren gogoeta: emakumezkoek kirolean duten egoera zaila, are gehiago nerabeak badira, baita senideen babesa lortzeko ere, gehiegizko lehiakortasunaz eta agresibitateaz inguratuta dirudien mundu batean.

Aitortza labur eskertu zuen igerilari gazteak. Kluba, entrenatzaileak eta familia izan zituen gogoan, "haiek gabe ez nintzatekeen horren urrutira helduko". Domina eta Euskadiko errekor ugariz betetako ibilbidea du Buruntzaldea IKTko kideak bular eta estilo igeriketan. Infantil kategorian hasi zen nabarmentzen, Espainiako neguko txapelketan brontzea eta urrea lortuta 100m. eta 200m. bular lasterketetan. Gainera, Euskadiko errekorra ondu zuen 200 metroetan, eta, horri esker, Espainiako taldearekin Erromako Nazioarteko Txapelketak parte hartu zuen. Laugarrena izan zen 100m. bular igeriketan eta finalera heldu zen 400m. estiloetan. Aurten, junior kategorian arrakastak pilatzen jarraitu du. Besteak beste, Udako Espainiako Txapelketan zilarrezko dominak lortu zituen 100m. eta 200m. bular probetan eta brontzea 200m . estiloetan; 400m. proban, berriz, urrea eskuratu zuen. Horrez gain, azaroan, kategoria absolutuan, Euskadiko errekorrak hobetu ditu 200m. bular eta 400m. estiloetan, finalean bosgarren amaituta.

HITZORDUAK

ARETO FUTBOLA

SENIORRAK, 1. MAILA

Eguzki Aldaz H.K. - Lauburu Berazubi fisioterapia
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.

SENIOR 2. MAILA

Gorka Margoak Makax - Eguzki ISU Leihoak
Larunbata. 16:00. Gaska kir., Donostian.

JUBENILAK

Antigua Luberri KE Makax - Eguzki Balerdi Harategia
Larunbata. 10:00. Bidebieta kir., Donostian.

Eguzki 2KN - Daunert Eskoriatza KE
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

GABONETAKO TXAPELKETA

Benjamin, alebin eta infantil mailako hainbat taldeek Gabonetako V. Areto-txapelketa jokatuko dute.
Astelehena 23-Larunbata 04. Michelin kirol gunean.

SASKIBALOIA

JUNIOR ERRENDIMENDUA

BKL Txindoki - Ostadar SKT
Igandea. 10:30. Antzizar kir., Beasainen.

3X3 TXAPELKETA

Hainbat taldeek 3x3 txapelketa jokatuko dute.
Larunbata 28. Egun osoa. Maialen Chourraut kiroldegian.

PILOTA

PROFESIONALA, PROMOZIOA, BINAKAKOA

Arteaga II eta Urretabizkaia II - Zabala eta Ruiz
Ostirala. 20:00. Uranzu pil., Irunen (lehenengo partida).

Arteaga II eta Urretabizkaia II - Salaberria eta Garmendia
Ostirala 03. 19:00. Alegian.

IGERIKETA

GABON KOPA

Buruntzaldea IKTko benjamin eta alebinek XX. Paco Sanchez sarian parte hartuko dute.
Larunbata. 16:00. Usabal kir., Tolosan.

HERNANIKO SARIA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako kideek Hernaniko XXII Sarian lehiatuko dira.
Larunbata 28. 16:00. Hernaniko kiroldegian.

EGUBERRIETAKO SARIA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako hainbat igerilari Eguberrietako nazioarteo sarian parte artuko dute.
Igandea 29. 10:00 eta 18:30. Majori kir., Ordizian.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Babyauto Zarautz - Real Oviedo Rugby
Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.

LASTERKETAK

GABONETAKO KROSA

Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik Pasai Antxoko X. Gabonetako Krosean lehiatuko dira.
Ostirala 27. 20:30. Pasaian.

SAN SILVESTREA

Lasarte-Oriako San Silvestrearen v. edizioa izango da.
Asteartea 31. 16:00. Lasarte-Oria.

Eslalom Txapelketaren II. edizioa, giro ederrean

Dozena bat lagunek parte hartu dute Ostadar Inklusioa sailak antolatutako kirol ekitaldian, Michelingo frontoian

Txintxarri

Ostadar Inklusioa saileko kideek II. Eslalom Txapelketa jokatu dute asteburuan, giro ederrean. Dozena bat lagun elkartu ziren Michelingo pilotalekuan, larunbat arratsaldean. Bertako zoruan hainbat oztopo zuri eta gorrirekin zirkuituak marraztu zituzten eta haien artean ibili behar izan zuten parte hartzaileek. Elkar animatu zuten partaideek, ondo baitakite zein den zailtasuna, eta banakako beste kirol askotan bezala, norberaren buruarekin duten lehia garrantzitsuagoa baita. Harmailetan ikusle taldetxo bat ere bildu zen animoak eman eta ahalegina txalotzeko.

Gazte bat, zirkuitua egiten. TXINTXARRI

Zirkuitu bera birritan egin zuten lehenik dozena bat partaidek. Bi ilara arteko bidea egin, erdian zegoen oztopora iritsi, hura inguratu, arrapala bat igo, hura jaitsi... aulkiaren eta zuten zailtasunaren arabera, trebezia mota bat edo beste erakutsi zuten. Epaileek bandera zuri eta gorriarekin adierazten zituzten ukituak. Adi-adi jarraitu zuten mugimendu bakoitza, horretarako lurrean etzan behar izan bazuten ere. Entrenatzaileak edo gertukoek aholkuak eman zizkieten pistaren kanpo aldetik, hurrengo oztopoetan egin beharreko irudia zein zen gogoratuta. Bukatzean, beste zirkuitu bat prestatu eta hori igarotzen hasi ziren.

EUGENIO POZO

Bigarren postua eta zilarra

Primeran ekin dio Espainiako Kopari Asier Pozo txirrindulari lasarteoriatar gazteak. Sailkapen orokorreko bigarrena da, larunbatean lau proba jokatu eta gero: scratch, tempo, eliminazioa eta puntuazioa. Igandean zilarrezko domina kolkoratu zuen madison proban, Kimetz Etxabe taldekidearekin batera. 2020ko urtarrilean eta otsailean jokatuko ditu kopa horretako hurrengo probak.

San Silvestre lasterketaren antolatzaileak, boluntario bila

Abenduaren 31n jokatuko da V. edizioa, 16:00etatik aurrera. Iraia Iparragirre futbolaria omenduko dute

Txintxarri

Aukera ederra da San Silvestre lasterketan parte hartzea, urtea giro ederrean amaitzeko: kirola, mozorroak eta festa, abenduaren 31n. 16:00etan hasiko da proba. Goizean kanpaikadak egingo dituzte udaletxean, 12:00etan, Porrotx pailazoaren laguntzaz. 11:30ean hasiko da pintxo-pote solidarioa, Okendon. *Izan Iñurri* egitasmoko kideek antolatuko dute aurten; beraientzat izango dira irabaziak. Iraia Iparragirre futbolariari egingo diote aitortza; 1 zenbakidun dortsala emango diote. "Herritarra da eta kirolaria, gure lasterketa bezala. Sekulako urtea egin du", adierazi dute antolatzaileek.

Antolatzaile batzuk, iaz. TXINTXARRI

Egitarauko ekintza guztiak behar bezala garatzeko ezinbestekoa da boluntarioen lana. Jende bila dabiltza antolatzaileak: "Urtero lortzen ditugu behar adina laguntzaile, baina aurten kopuruz gaizki gabiltza". Antolatzaileei lagundu nahi dieten herritarrek mezu bat idatzi beharko dute *info@sansilvestrelasarteoria.com* helbide elektronikora.

Zabalik dago izen-ematea ere, atari digital honetan: *www.kirolprobak.com*. Bost euro balio du proban parte hartzeak, eta hamasei urte edo gehiago dituztenak apuntatu ahalko dira. "Internet bidez izena ematea gomendatzen diegu herritarrei".

OSTADAR IPAR MARTXA

Eguraldiak utzi dienean, irteera

Azarorako aurreikusita zuten irteera egin dute asteburuan Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek. Ezin izan dute hasiera batean prestatutako ibilbidea egin, ordea: lokatzez betea zegoen Zumaiatik Debara bitarteko Donejakue bidea. Horren ordez, "buelta eder bat" egin dute Zubietatik, eguraldi ona baliatuz. Xirimiri elkartean bazkaldu dute zenbait parte hartzailek gero.

URTARRILA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
		1	2	3	4	5

OTSAILA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
					1	2

MARTXOA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
						1

6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

UZTAILA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

ABUZTUA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

IRAILA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

URRIA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

AZAROA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

ABENDUA

A_1	A_2	A_3	O_1	O_2	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

PLAZAN BAZAN

Hamalau!

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.

Mezua

Erabil ezazu honoko alfabetoa Olentzerok zer dioen jakiteko. Iruditxo bakoitzaren azpiko laukian dagokion letra jarri eta hitzak osatuko dituzu.





Itzala

Ea, bide batez, zein dira Olentzeroren eta zakurraren itzal zuzenak?



Egilea: Garbiñe Ubeda

Soluzioak: www.plazanbazan.eus

Maite BETELU

aterpea

2020 zoriontsua opa dizuegu!

- Gestoria
- Aholkularitza
- Inmobiliaria zerbitzuak
- Aseguruak
- Etxebizitzen administrazioa

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • www.mbetelu.com

2020 zoriontsua opa dizuegu!

ILLARRETA

ITURGINTZA ETA IGELTSERITZA

info@illarreta.com

BULEGOA
Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52

TAILERRA
Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943 33 17 54



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak
- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

"Pribilegiatua sentitzen naiz, ogibide ederra izan dut"

ALEX TETUAN KATXIPORRETA TALDEKO PAILAZOA

Astebeterako hasi zen pailazogintzan, taula gainean. 7 egunak, ordea, 26 urte bilakatu dira, eta pertsonaia ugari gorpuztuta, orain amaitu berri du pailazo ibilbidea; jubilatu egin da

Maria Tetuan, Alex aitaren jarraitzaile sutsua izan da beti. Pailazogintzan aritu den urte luzeetan

Maddi Zaldua

Astebeteko lan eskaintza bat onartuz hasi zen Alex Tetuan (Lasarte-Oria, 1958) Takolo, Pirrutx eta Porrotxekin lanean; langabezia une batean zegoela, Agus Mujikak, Takolok, egin zion eskaintza. Herrikideak baino gehiago ziren, lagunak, eta Bilboko astebeteko ekintza batean parte hartzeko proposamena egin zion, eta, Tetuanek, lanik gabe zegoela aprobetxatuz, aurrera egin zuen. Astebete, ordea, mende laurden pasatxo bihurtu da. 26 urtez aritu da bizipoza banatzen, eta orain, Tetuanen oholtza gaineko pailazo ibilbidea iritsi da amaierara; jubilatu egin da.

Ondo oroitzen du debutaren emanaldia: "Behobian egin nuen lehen ikuskizuna eta Txerrikutin gorpuztu nuen". Horren ostean ere etorri ziren pertsonaia bat baino gehiago; errenkada luzea. Jaxinto Bustiblai, Tantaka Yotanka, Toribio erregea, Tarrapatata pirata eta Txilipito jauna izan dira taulagainean jarri dituen pertsonaietako batzuk. Eta horietan guztietan eroso sentitu bada ere, batzuk besteak baino "maiteagoak" izan dituela aitortu du. "Txilipito jaunak eta Anakletok izugarrizko arrakasta izan dute, baina Eurolio jaunaren eta Nikasio jaunaren oso oroitzapen politak dauzkat". Azken urteetako pertsonaien artean ere Jeronimo izan da "bereziena".

Urtez urte pertsonaia ezberdinak taularatzea "erronka handia" izan da lasarteoria tarrarentzat: "Hainbeste pertsonaia ezberdinei nortasun berezia ematea pagotxa izan da".

4.000 saio baino gehiago egin ditu pailazo taldeak sorreratik gaur egunera arte, eta neke uneak egon badira ere, bidea "zoragarria" izan dela azpimarratu du Tetuanek: "Nire bizitzako ogibiderik onena izan da, pribilegiatua sentitzen naiz".

Hori esateko, ordea, badauka arrazoi bat baino gehiago. Oso gazterik hasi zen lanean, eta lan gogor bezain neketsuetan aritzea egokitu zitzaion, urte luzez. Txapista gisa murgildu zen lan mundura, eta lantegi bateko langile ere izan zen gero. Horren ostean, hormigoi-makina batekin jardun zen denbora askoz, eta pailazogintzara egin zuen salto hori alde batera utzita: "Guztietan, ederrena, azken lanbidea izan da".

Baloreetan oinarritutako lanak

Lasarte-Oriaren euskalduntzeari herriko pailazoek egindako ekarpena ezinbestekoa izan da. 1982. urtean Lasarte-Oriako haurren %80ak A ereduan (erdara hutsean) ikasten zuen, eta kalean ere, apenas entzun zitekeen euskara. Egoera hori irauli, eta euskarari bere lekua eman asmoz, haurrentzako Olentzeroren etorrera antolatu zuten Jose Mari Agirretxek (Porrotx), eta Agustin Mujikak (Takolo). Bost urtez aritu ziren ikazkinaren etorrera prestatzen, eta 1987. urtean, Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazo taldea sortu zuten. Hasierako urteetan, ordura arteko helburu berari jarraituz egin zuten lan; haurrak euskaraz entretenitzea zen xede nagusia, baina emanaldiak aurrera joan ahala, haurrek pailazoen jarrerak imitatzen zituztela ikusirik, pailazogintza heziketarako tresna bilakatzea erabaki zuten. Horrela, ordura arteko emanaldiei, balio erantsi bat gehitu zioten, eta prozesu horretan sortu zituzten, besteak beste, *Semaforo hori* (1995-1996. urteetan) eta *Dabadabadu* (1997-1998) abestiak.

Tetuan kontzie nte da heziketaren bidetik taldeak lortu

"PAILAZO ARITU NAIZEN URTE GUZTIETAN JENDEAK EMANDAKO MAITASUNA MUGAGABEA IZAN DA"

duen arrakastaz. "Talde gisa, oso ondo jakin dugu transmititu nahi genuena transmititzen, eta hori izan da arrakastaren gakoetako bat". Izan dugun harrera onaren zurrunbiloan, ordea, "hankak beti lurrean" mantentzeari arreta berezia jarri diotela ere azpimarratu du. "Emanaldiz emanaldi kritika onak besterik ez jasotzeak badu arrisku bat, ez da erraza oreka mantentzea, baina hori ere behar bezala egiten jakin dugu".

Bizipoz asko banatu du, eta horren trukean jasotako maitasuna "mugagabea" izan da: "Batzuetan, argiztapenaren ondorioz, kaxa beltzaren efektua sortzen da oholtza gainean, eta ez dugu publikoa ikusi ere egiten, baina berdin-berdin jaso dugu ikus-entzuleen indarra".

Abesti askoren gaurkotasuna

Pailazo taldeak sortutako abesti askok ez dute gaurkotasunik galdu, gaur egun ere. Uda iristearekin batera, Euskal Herriko herri askotako erromerietan entzun daitezke *Xalala Rikiriki* edota *Maite Zaitut* abestiak. "Gure abesti asko *hit* bihurtu dira, belaunaldiz belaunaldi jaso dira, eta betirako geratuko dira gurekin. Pozgarria da, edozein

asko gozatu duela aitarekin. TXINTXARRI

Pailazogintzan hasi zenetik jubilatu den arteko lan talde osoarekin oso eskertua dago Alex Tetuan. KATXIPORRETA

Ezkerretik hasita lehena da Alex Tetuan, orain urte asko, Donostiako Alde Zaharreko udal liburutegian. IKOR KOTX

lekutara joan, eta abesti horiek entzutea".

Gaztetan ikasi zuen euskaraz Alex Tetuanek. Mendiarekiko zaletasun handia izan du betidanik, eta irteeretan parte hartzen hasi zenean, beste partaideekin komunikatzeko zailtasunei aurre egin beharrak bultzatu zuen hizkuntza ikastera. "Agusekin hasi nintzen ikasten, eta AEKn egin nituen gero bi urte". Aitortzen du ez duela inoiz euskaraz aritzeko lotsarik izan, eta hori "oso lagungarri" izan zaio. Pailazoekin lanean hasi zenerako, ordea, hizkuntza menderatzen zuen.

Jubilazioan erretirorik ez

Taula gaineko lanak alde batera utzi berri ditut Tetuanek, baina hori hala izanik ere, bere egunerokoak ez du etenik. Oholtza gaineko 26 urteak ezingo ditu berehalakoan ahaztu, eta denbora horretan bizitakoen oroitzapenak, inoiz baino presenteago ditu orain. "Abenduaren 3an, Euskararen egunean eta San Frantzisko Xabier egunean, urte luzez aritu gara Irurtzunen, eta aurten, pailazoak bertako emanaldian ari ziren bitartean, oso gogoan izan nituen urte luzez bertan bizitakoak".

Dagoeneko, ez da Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin taula gainean arituko, baina elkarlanean jarraituko dute. "*Bizi Dantza*, emanaldi berria, ikustera joan naiz pare bat aldiz, eta nire ekarpenak egin dizkiek pailazoei; "beti izan naiz oso kritiko, agian gehiegi, gure lanarekin".

Mendizaletasunari tarte gehiago egin asmo dio hemendik aurrera, baina bi iloba ditu eta horien zaintzaz ere arduratuko da.

Hemendik aurrera oholtza gainetik ez, baina ziur ingurukoengan bizipoza banatzen jarraituko duela Tetuanek. Patatari jaunaren eta Toribio erregearen jarraitzaileek beti oroituko dituzte 26 urtez Alex Tetuanek biziarazitako momentuak. Ziur izan dituela milaka jarraitzaile, baina horien artean, bat oso berezia: Maria alaba. Elkarrekin etorri dira Txintxarri-ren elkarrizketara, eta begi bistako da elkarrekiko duten miresmena. Aitarekin asko gozatu duela eta bere "jarraitzaile sutsua" dela azaldu du alabak, aitak harrotasun aurpegian irribarrez begiratzen dion bitartean.

Katxiporreta

KATXIPORRETAKO LAGUNAK

ALEX TETUAN IRIARTE, EZINA EKINEZ EGINA

Alex Tetuan Iriarte Lasarte-Orian jaio zen duela 61 urte. Txiki-txikitandik oso mutiko bizia izan da. Etxea, kalea eta eskola, orohar, erdaldunak ziren garai hartan, Michelinek markatu baizuen gure herriaren nortasunaren aldaketa. Kalea eta mendia izan ziren bere eskola, eta bertan egin zituen lagunak Alexek, tartean Agustin Mujika Yarza, Takolo.

Oso gazte zela hasi zen lanean, tailer batean aurrena. Irabazitakoarekin etxean laguntzen zuen. Gerora, hormigonera batekin ere ibili zen batera eta bestera. Baina patuak eta Agusen laguntasunak toki bat egin zion pailazo taldean. Taldea sortu eta 6-7 urtera jantzi zuen lehen mozorroa. Herrian pailazoak egun baterako jaio ginen arren, 32 urteko ibilbidea egina dugu, Alex bidaide, azken 25 urtetan, berak ere sudur gorria soinean zuela. Denetarik egin du Alexek taldean. Mozorroak, pertsonaiak, muntaiak, gidari lanak... Mila ofiziotako laguna izan da.

Berak dio telebistan eta pantaila handian, pelikulei begira ikasi duela ofizioa, baina oholtzak ere eman dio eskarmentua. Hemen eta han, Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatu ditugu, artean Pitillas, bere ama zenaren herria. Han bertan, gaztelera nagusi, eskolan aktuatu izan du Alexek euskaraz, lingua navarrorum ahoan.

Eskola ez zuen maite izan (ziur aski eskolak bera maite izan ez zuelako), baina Alexek izan du unibertsitatea: natura. Taldearen joan-etorrietan, mendiak, bailarak eta paisaiak, ibaiak eta ibilbideak aipatzen zizkigun, eta baita petsonak ere, herri guztietan egin baititugu lagunak. Guk diogu euskara 'batua' hitz egiten duela Alexek, batetik, bestetik, eta beste hartatik hartua, eta elkarrekin notabait lotua. Oso euskara bitxia du Alexek. Euskaltegia gehiegi zapaldu gabe, bateko eta besteko esaerak eta joerak bereganatuta, euskalki berezia sortu du urte luzez.

Elkartasunaren hizkuntzan ere mintzo zaigu Alex, Atzegi Elkartean boluntario aritzen baita kanpaina ezberdinetan.

Orain, jubilazioa hartuta, mendian gora ikusiko dugu, ibilian, baita Santa Barbarako horman zintzilik ere. Datorren abenduaren 31n ere hor izango da Buruntzan, goizez, bertako ermitan, salda eta txistorra banatzen, Lasarte-Orian azken urteetan errotu den ohituraren sortzaile eta bultzatzaile ere izan delako, Batasuna kultur-kirol taldean urteak emandakoa.

Hogeita bost urte eta hamaika abentura bizi izan ditugu elkarrekin, eta izango dira gehiago ere, Alex berriro oholtzan ikusiko baitugu datorren urteko udazkenean, 2020ko Euskararen Maratoian, 10. Edizioan. Han izango gara, irri, kantu eta dantza, Ahobizi, Belarriprest eta Bihotzgoxo, zure euskara 'batuaz' gozatzen.

Alex, pertsona eta pailazo... ezina, ekinez egina. Laguna, bikotekidea, aita, aitona... Bejondeizula, eta gozatu zure denboraz, naturaz eta senide eta lagunez, katxiporreta!

Bi bertsolari, bi belaunaldi eta bertsolaritzaren garapena

Patxi Etxeberria bertsolari berrientzat antolatutako txapelketa bateko irudian. KUTXA FOTOTEKA

ANE LABAKA ETA PATXI ETXEBERRIA BERTSOLARIAK

Lasarte-Oriako bertso eskolako bi bertsolari maila handiko final batean egon dira. Patxi Etxeberria 1979-80 ikasturteko Euskal Herriko txapelketako finalean izan zen eta 2019ko Gipuzkoako txapelketako finalean izan da lehian Ane Labaka

Nerea Eizagirre

Ane Labakaren (Lasarte-Oria, 1992) eta Patxi Etxeberriaren (Orio, 1930) arteko solasaldia bertsolaritzari buruzko belaunaldi eta lagun arteko mahaingurua izatea espero genuen. Ez da posible izan. Gipuzkoako txapelketa finalaren ostean, Ane Labaka gaixotu da eta egun batzuk egin ditu ohean. Telefonoz erantzun behar izan ditu gure galderak.

Etxeberriak eta Labakak Lasarte-Oriako bertso eskolan ezagutu zuten elkar. Hamaika bertso saiotan jardun dira elkarrekin. "Oso langilea da, bertsoa maite du, entzuten duen bertsoa ondo jaten du eta ulertzen du eta lan asko egiten du", azpimarratu du Etxeberriak. Labakak, berriz, "nik asko estimatzen dut Patxi eta uste dut asko ikasi dudala bere ondoan. Patxi entzutea garaiko kontuekin eta bertsotan egitea berarekin eremu eta adin hain diferenteetatik kriston oparia da".

Labakak zein Etxeberriak badakite maila goreneko final batean egotea zer den. Etxeberria Euskal Herriko Txapelketako finalean izan zen 1980ko urtarrilaren 6an, Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan. Ia 40 urteren ondoren, hiri berdinean, baina beste kokaleku batean, Donostia Arenan izan zen Labaka, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean, abenduaren 15ean.

1979-80 ikasturteko txapelketa berezia izan zen, Patxik azaldu duenez: "12 urte egon zen txapelketarik egin gabe eta herriak txapelketa eskatzen zuen. Bertsolariak ez gentozen bat antolatzaileekin eta azkenean, Loiolan egindako bilera batean adostu zen txapelketa egitea, baita txapelketara joan nahi zuena aske joatea ere."

Bi sailkapen saio egin ziren orduan eta zortzi bertsolari izan ziren final horretan: Amuriza, Azpillaga, Enbeitia, Etxeberria Garmendia, Gorrotxategi, Larrañaga eta Xanpun. "Bertsolarien maila agian ez zen ona izan asko geratu zirelako joan gabe. Haiek joatea erabaki izan balute, agian gu ez ginake segurasko egongo finalean, baina horrela tokatu zen eta horrela egin zen", aipatu du Etxeberriak.

Hala ere, oso esperientzia ona izan zen Etxeberriarentzat. "Ni gogoratzen naiz etxera etorri eta Ixabel emazteak galdetu zidala 'Zer moduz?', eta nik esan nion 'oso-oso ondo'. 'Izugarri', esan nion. Gustura izan naiz izan den giroarekin eta. Ez galdetu zer egin dudan, baina eguna oso ondo pasa dut".

Bertsolaritzarentzat final hori mugarri izan zela uste du Etxeberriak: Nire ustez txapelketa horrek indar handia izan zuen. Badakizu zer su eman genion. Hurrengo txapelketara denak atera ziren. Eta handik aurrera eromena. Txapelketa, batzuentzat, sakratua da. Hasiera ere eman behar zitzaion eta guk egin genuen. Txondorra piztu genuen guk, eta kristoren indarrarekin dago. Horrek poza ematen dit niri".

Bertso eskolen eragina

Prestaketa aldetik ere gauzak asko aldatu direla azaldu digu Etxeberriak. "Baten batzuk izango ziren txapelketetara gauzak irakurrita joaten zirenak. Baina egunean zortzi, hamar edo hamabi ordu lan egin eta handik aterata, lagun artean bertso batzuk kantatu edo plazaren batean aritzen zinen. Edo lanean zinenean edo ez dakit ba... burua bueltaka izango zenuen. Baina besterik ez zegoen. Gure garaian, hura bai zela inprobisazioa. Joan eta jartzen ziona jartzen ziola zerbait erantzuten zen".

Hala ere, 1979/80 urteko txapelketan aldaketaren lehen pausoak nabarmendu zela adierazi du: "Bizkaitik bi etorri ziren, Amuriza eta Enbeitia, eta lehen eta bigarren egin zuten. Garai hartan ez genuen pentsatzen bertsolariak elkartzea. Bizkaitarrak bai, lana egina zuten. Haiek bertso eskola aspalditik zeukaten egina haien artean. Gu harrituta egoten ginen gaia jarri eta nola egoten ziren pentsatzen. Guk ez genuen abilidaderik minutu bat egoteko ere. Ohitura batek kantatu eta bestea erantzutea zen".

Bertso eskolen kimua izan zen hori. Etxeberriak ez zuen horietan sinesten. "Ni eremu honetako ordezkari bezala joan nintzen bilera batera Elgoibarren eta kontu hori hasi zen. Bertso eskola gora eta behera zebiltzan. Nik ez nuen sinesten ere egiten eta Imanol Lazkanok esan zidan, 'Bai, Patxi, bai. Ikaragarri egiten ditut. Hoik horrela baldin badatoz, guk berehalaxe bastoia hartu eta paseatzera joateko egongo gatzek'. Eta hala izan da".

Bide luzea

Garapen horren erakusleetako bat da abenduaren 15eko Gipuzkoako txapelketako finala. Bertara iristeko Gipuzkoa bertsotan, Gipuzkoako txapelketako kanporaketak... maiatzetik abendura arteko "maratoi luzea" bizi izan du Labakak. "Finalera iritsi direnetik, bakarra naiz maiatzean hasitakoa", azpimarratu du.

Bidea gainera ez da erraza izan. "Nire txapelketa nahiko gorabeheratsua izan da. Lehenengo fasea justu pasa nuen, gero hurrengoan faseko puntuazio handiena atera nuen, hurrengoan berriz atzera, gero berriro gora... Momentu askotan arriskua ikusi dut hurrengo fasera ez sailkatzeko", adierazi digu.

Finalerdiko lanarekin postu ona lortu zuen sailkapenean, baina azken saiora itxaron behar izan zuen. "Banekien Oiartzunen kantatu eta gero kokapen oso ona nuela, ez neuzkalako hainbeste aurrean eta Tolosako azken saiotik pasa behar nindutelako askok. Bestalde, Tolosakoa azkeneko finalerdikoa izanda, banekien tentsioa handiagoa izango zela eta probablea izango zela puntuazioak behetik joatea. Zeren eta, justu, final-laurdenetan, Azkoitian berdin pasa zitzaidan. Tentsio gehigarri bat egoten da horrelako saioetan. Lagunen bat izango balitz lasai egoteko esango nioke, baina, zu zarenean, beti saiatzen zara prestatzen, kolpe handia ez hartzeko".

Emozioak kudeatu

Finalerako sailkatu eta alde emozionala landu duela onartu digu Labakak. "Maiatzean, txapelketa hasi aurretik, bertso-eskola eta koaderno lan asko egin nuen: irakurri, errimak landu, hausnartu zer esan nahi nuen... horrekin banentorren. Eta finalerako bi aste faltan,

Ane Labaka GIpuzkoako bertsolari txapelketako final erdikoan kantuan. GIPUZKOKAO BERTSOZALE ELKARTEA

jakin nuenean sartzen nintzela, esan nuen: 'Ba hori eginda dago eta alde teknikoa ez dut uste landu behar dudanik. Oinarri bat dut".

Hala ere, bertso eskola batzuk egin eta bestelako lana egin zuen: "Duela lau urteko irudiak ikusi nituen, Donostia Arenan izan nintzen egun batzuk lehenago nire buruan bisualizatzen saiatzeko. Niri beldur gehiena ematen zidana hori zen, 6.000 pertsonen aurrean ez dut inoiz kantatu. Orduan banekien, gauzak ongi joanda, bertsotan hobeto edo okerrago egin nezakeela, gehiago arduratzen zidan beste aldeak: emozionalki nola egongo nintzen, nerbioei nola egingo nien aurre eta pixka bat horretan saiatu nintzen".

Aurreko astea berezia izan zela adierazi digu Labakak. "Babes keinu pila jaso nituen eta mimoak."

Egunean bertan, aldiz, emozioek gainezka egin ziotela onartu du: "Kristoren inpresioa egiten du sarrera horrek, pasilo horrek, jende guztia txaloka, bestea zutik. Urduri nengoen eta aldi berean gogotsu eta pozik. Oso aztoratuta eta emozionatuta nengoen".

Eta horrek jardunean eragin zuen. "Kostatu zitzaidan saioan sartzea, gero bukaera alderako ariketekin gusturago geratu nintzen. Behetik gora egin nuela uste dut. Hamarreko txikiarekin eta bakarkakoarekin oso gustura geratu nintzen", adierazi du Labakak.

Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu saikatu ziren buruz bururako eta Labakak ezusteakoa eraman zuen. "Pena pixka bat hartu nuen Alaiarengatik. Egia da atzetik ez garela hain ondo entzuten. Pentsatzen nuen Beñat eta biak izango zirela, gero sorpresa hartu nuen Aginena jakitean. Egia da publikotik ere jende askok esan didala".

Etxeberria ere bat dator horretan, "Nik Alaia buruz buruzkoan egongo zela uste nuen. Oso ondo egin zuen bertsotan. Bakarka egin zituen hiru bertsoak ere niretzat oso onak ziren".

Gaztelumendik jantzi zuen txapela eta seigarren izan zen Labaka. Pozik dago egindako lanarekin: "Osotasun batean hartzen dut eta finalarekin eta txapelketarekin oso gustura nago".

Etxeberriak etxetik jarraitu zuen finala eta bere ustez maila ederra izan zen. " Gorabeherak egon ziren. Bertso batzuk baxuagoak, baina bestela orokorrean saio ona izan zela uste dut". Labakak lan ona egin zuela ere azpimarratu du.

Horrez gain, finalean lau mutil eta lau neska egotea bere garaian pentsaezina zela adierazi du. "Berdintasun hori ederra zen. 84 hasi ziren eta horietatik 8 geratu dira. Lau neska eta mutil. Ez zen gertatu orain arte. Pentsa ezazu, gure garaian, etxe batentzat *bajeza* bat zen bertsolari izatea. Emakumeak etxean jarduten ziren. Emakumeak horrela azaltzea ere *bajeza* bat zen. Eta orain zein salto eman den".

Labaka pozik agertzen da finaleko irudi horrengatik: "Bertsokide batek esaten zuen bezala bertsolaritzaren iruditegia aldatzen ari dela pixkanaka. Adibidez, Lasarte-Oriako bertso eskolako ikasleak joan ziren ikustera, eta niretzako kristorena da beraiek ere eredu bezala ikustea hori".

Baina finala parekidea zela entzutean haserretu zela ere onartu du. "Hau da icebergaren punta, txapelketaren finala eta egia da lau eta lau gaudela, aurreko urtean Bizkaikoan pasa zen bezala. Baina gero joaten zara txapelketaren hasierara eta sailkapen fasean, udaberrian, 84tik 17 bakarrik ginen neskak. Orduan, hausnatu behar dugu pixka bat: 'Bale, neskak daude puntan, baina gero atzean zer pasatzen da?'. Zergatik ez dute parte hartzen emakumeek, zergatik daukate gizonek hainbesteko presentzia... hori kuantitatiboki".

Gauza gehiago aldatu behar direla ere uste du. "Gero, kualitatiboki, finala parekidea izateko gauza gehiago gertatu behar dira: publikoak nola ikusten gaituen bakoitza, gure artean zein harreman eraikitzen diren... Orduan uste dut, gauza asko aldatu behar direla.

Arriskua dagoela ere azpimarratu du: "Iruditzen zait arriskua dagoela, jendeak esateko, 'ba lau eta lau eta listo', baina atzean beste gauza asko daude aldatzeko".

Esperimentazioa

Etxeberriak etorkizun oparoa opa dio Labakari eta iragarpen bat egitera ausartu da: "Final gehiagotan egongo den errezeloa badaukat. Pentsatzen dut, Ane Euskal Herriko finalera joango dela, zaila egongo da dagoen mailarekin. Hori opa diot".

Labakak entzutean barre egin du: "Hor pasatzen da aiton-amonekin bezala, Patxi bada agian hirugarren aitona eta uste dut ez dela oso objektiboa, baina eskertzen diot".

Izan ere, oso urruti ikusten baitu Labakak Euskal Herriko txapelketa. "Durangoko azoka, finala... egon naiz eutsi eta eutsi eta gorputzak eman dit abixua. Saioak-eta badauzkat. Agenda betetzen ari zait eta nik printzipioz bertsotan gozatzen jarraitzeko asmoa dut. Egia da txapelketa ez dela gehien gozatzen dugun lekua. Orain plazetan gozatzea eta esperimentatzea, txapelketako zurruntasun horretatik kanpo kantatzea da asmoa. Txapelketan beti dira ariketa konkretu batzuk eta hortik kanpo beti askeago gabiltza. Gogo asko daukat hortik kanpo egoteko. Euskal Herrikoa urrun ikusten dut oraindik".

Lagun artean sortutako urteroko usadioa

Hamaiketako eder batekin agurtzen dute urtea lasarteoriatarrek. Abenduaren 31n, herritar ugari bildu ohi dira, Buruntzan urte zaharrari agur esateko. Mendi buelta aitzakiatzat hartu, eta giro ederrean igarotzen dute goiza, lagunartean

Hamaiketakoa eginez agurtzen dute urtea, abenduaren 31n, Buruntzan. TXINTXARRI

Txintxarri

Badira urte batzuk, lasarteoriatarrek urtea Buruntzatik agurtzen dutela. Orain dela zortzi bat urte konturatu ziren, Lasarte-Oria ez beste herrietan bazegoela urte zaharrari mendi giroan agur esateko ohitura, eta helburu berarekin hitzordua zehaztu zuen herriko lagun talde batek. Orduz geroztik, galdu ezineko hitzordu bilakatu da herritar askorentzat.

Lasarte-Oriako elkarteekin aritzen dira elkarlanean, eta lan handiegia suposatzen ez duen arren, hamaiketakoa prestatzeko aurrez egin behar izaten dituzte erosketa eta lan batzuk. Horrela azaldu du Tomas Maizek, antolatzaileen taldeko kideak. "Sei edo zortzi lagun aritzen gara antolatzaile lanetan".

Goizean goiz esnatu eta 08:45erako abiatzen dira Buruntzara, aurrez egindako erosketak bizkar gainean hartuta. Batzuk herritik oinez, eta besteak, Azkorteraino autoz joan ostean, bertan batzen dira oinez doazenenekin.

Behin Buruntzara iritsi, eta, herritarrak iristerako, guztia prestatzen hasten dira: "Salda Lasarte-Oriatik prest eramaten dugu, berotu besterik ez da egin behar izaten, baina txistorra, bertan sukaldatzen dugu". Jaki horiez gain, gazta eta txokolatea ere eskaintzen dute.

11:00ak aldera biltzen da jende kopuru gehien mendian, eta trikitiaren doinuez lagunduta, giro ederraz gozatzen dute.

Pisuarekin igo, gabe jaitsi

Lasarteoriatarrengan harrera "ona" dauka urte bukaerako hitzorduak. "Bizkarrean pisuarekin igotzen gara, baina bueltan, pisurik gabe jaisten gara, eta hori, seinale ona da".

Edizio guztietan, eguraldi ona izan dute, eta aurten ere, hala izatea espero dute. Dena den, eguraldi txarra ez da aitzakia, izan ere, estalpe azpian babestuta, eta herri giroan, urteari agur esateko.

LARRE JATETXEA
20 € Asteburuko menua
21 € Menu begetarianoa
23 € Babarrun-jana
egin erreserba:
943.361012 - 679.930895
Larrekoetxe bidea, 10
LASARTE-ORIA

MAiTE
ESTETIKA ARETOA
2020 zoriontsua opa dizuegu!
Ordutegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45
Gabon hauetan oparitu gertukoei ongizatea!
Opari-txartelak ditugu zerbitzuetan erabiltzeko
• Manikura eta pedikura
• Makillajea
• Aurpegi eta gorputz tratamentuak
• Solariuma
• Mota ezberdinetako depilazioak
• Betileen tindatzea eta *lifting*-a...

COPILASARTE COPISTERIA - PAPELERIA
Eguberri on!
FOTOKOPIAK TXURI BELTZEAN ETA KOLORE DIGITALA
• Koadernaketak • Plastifikatuak
• Bulegoko materiala
• Material informatikoa
Ploterra, eskanerra eta planoen kopiak
Kale Nagusia 34, behea 1 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 930 - Faxa: 943 366 931
copilasarte@gmail.com

AIZPURUA
Pinturak
• Pintura plastikoak bereziki
• Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan
Eguberri on!
Zumaburuko industrialdea, Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 21 53

Gerturatu gure tailerrera:
A2car
Zumaburu kalea 18
20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 24 63
Continental The Future in Motion
100 € arte erregaia DOAN eduki dezakezu
All-Season gurpilak edo neguko Continental gurpilak muntatuz gero
Abenduaren 31a arte
16" gurpil-hagun arte
20 € 50 €
17" gurpil-hagunetik aurrera
40 € 100 €
7ºC Badator hotza
Continental konpainiak All-season edo neguko gurpila muntatzea aholkatzen du.

txintxarri
Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz
Datorren asteko Txintxarri berezian
2019KO URTEKARIA
argitaratuko dugu!
Urteko albiste garrantzitsuenekin

TTAKUN-en Gabonetako sariak

Azaro eta abenduan, zozketa ugari egin ditu TXINTXARRI aldizkariak bere irakurleen eta bazkideen artean. Azaroan, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Bizi Dantza*ren diska berria zozkatu genituen, eta Iñaki Olano izan zen irabazlea.

Abenduan, berriz, sari bat baino gehiago izan ditugu. Batetik, Ttakun Kultur Elkartearen lema proposatzeko eskatu genien herritarrei, eta parte hartu dutenen artean, Lorena Ciria izan da irabazlea, eta bihar ospatuko den San Tomas azokako bi talorentzako bi txartel irabazi ditu.

Bestetik, Ttakuneko bazkideen artean Errigorako otar bat zozkatu dugu, eta Imanol Zinkunegi izan da saskiaren garailea.

Zorionak, beraz, irabazle guztiei, eta behar bezala aprobetxatu izana espero dugu!

Urte berrian ere, zozketa ugari izango dira TXINTXARRIren eta Ttakun Kultur Elkartearen eskutik!

TXINTXARRI

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Jantzi tradizionalen uzta berria, beti bezain dotorea

Urriaz geroztik aritu dira lanean Lasarte-Oriako Emakumeen Zentro Zibikoan. Hari, jostorratz eta josteko makinekin trebatu dira ikasleak, eta irakaslearen laguntza eta gomendioekin batera, jantzi ederrak osatu dituzte aurten ere

Maitane Aldanondo-Maddi Zaldua

Beste urte batez, emaitza dotoreak lortu dituzte Euskal Jantzi Tradizionalen ikastaroan aritu diren jostunek. Urria hasieran hasi zuten ikastaroa, eta abendua iristearekin batera amaitu dute.

Urteroko herritarrak aritu dira hari eta jostorratz artean, baina, aurten ere izan da lehen aldiz jostera animatu denik. Guztiak "oso txukun" aritu direla nabarmendu du Ione Artola irakasleak. "Oso gustura ibili gara, giro oso polita izan dugu taldean".

Ikastaroa hasterako, jantziak egiteko oihalak ikasle bakoitzak eraman ditu. Bakoitzak bere gustukoak aukeratu, erosi eta horiekin osatu ditu jantziak. Emakume zein gizonentzako trajeak egin dituzte; batzuek jantzi osoak, eta beste batzuk, berriz, pieza solteak. Ziur denek ala denek, itxura dotorez luzituko dituzte datozen egunetan, San Tomas egunean, eta Gabonetan.

Nola jantzi ikasiz

Egindako lanak modu egokian janzteko saioa ere egin dute; ostiralean, Ane Albisu adituak hitzaldia eskaini zuen Jalgi Kafe Antzokian. 1985etik gaia ikertzen ari donostiarra Ikerfolk taldean, eta prestatzen ari den doktorego tesiaren hainbat eduki partekatu ditu Jalgira bertaratutakoekin. "Zer bezain garrantzitsua da nola". Egun seinalatu horietan kalean ikusi ohi duguna ez da aitona-amonek, birraitona-amonek (edo herenaitona-amonek, kasuaren arabera) erabiltzen zuten arropa. Baserritar janzkera tradizionala galdu egin zen eta ohikoenak festaren inguruan sortutako aldaerak dira, "XX. mendeko ohitura eta asmakizun berriak", herri eta hirietan egiten hasi ziren Euskal Jaietan sorburua dutenak. Osagaiak berak edo antzekoak badira ere, "ez da baserritarren jantzia, kaletarrena da". Nagusiki, janzteko moduan dago aldea.

Jantzi tradizionalen ikastaroa amaitu da, baina josten jarraitzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek datorren urtean ere.Ttakun Kultur Elkarteak, urteroko *Titare* ikastaro iraunkorra martxan jarriko du urtarrilaren 9tik aurrera. Ostegunetan izango dira saioak, 15:00tatik 17:00etara, eta bertan parte hartu nahi duenak, izena eman behar du Ttakun Kultur Elkartean, 943 37 14 48 edota 695 78 53 89 telefono zenbakietan.

Ikastaroan egindako lan guztiak ikusteko, ikus *txintxarri.eus* atariko galeria.

Lan ederrak osatu dituzte Ione Artola irakaslearen laguntzarekin. IONE ARTOLA

Emakumeentxako alkandora dotorea osatu du ikastaroko jostun batek. IONE ARTOLA

Baserritar jantziak modua egokian janzteko aholkuak eman zituen Ane Albisuk. TXINTXARRI

Itxitura-irekiera bereziekin apaindu dute irudian ikus daitekeen gona. IONE ARTOLA

Etxeko txikiak dotore luzituko dira datozen egunetan. IONE ARTOLA

Ostiralean eskaini zuen hitzaldia Ane Albisu adituak, Jalgin. TXINTXARRI

Gizonezkoen alkandora bat baino gehiago osatu dituzte aurten ere. IONE ARTOLA

World of Dance txapelketako finalera sailkatu den taldea; hiru lasarteoriatarrek egiten dute dantza bertan. BAMBOO DANCE

Mugak gainditzen, oholtza gainetik

Bamboo Dance eskolako talde bat World of Dance txapelketako final handira sailkatu da; lasarteoriatarrak dira dantzarietako hiru. 2020ko abuztuan joango dira Los Angelesera, ekitaldi horretan parte hartzera. Bidaiako gastuak estaltzeko laguntza bila ari dira orain

Iñigo Gonzalez Sarobe

Poza. Satisfazioa. Edozer lortzea posible dela pentsatzea. Hori guztia sentitu dute Bamboo Dance eskolako junior kategoriako taldekideek berriki, World of Dance txapelketako finalera sailkatu direnean, Bartzelonan. Hip hop estiloan lehiatu dira. AEBetan ospatuko da ekitaldi hori, Los Angeles hirian, datorren urteko abuztuan. Ia 30 dantzarik osatzen dute taldea. Herritarrak dira horietako hiru: Oihana Conde, Eneko Martija eta Aritz Carrasco. Condek 11 urte daramatza dantza egiten. "Eider Rodriguezek *Fama a bailar!* lehiaketan parte hartu zuen, eta Bamboo Dance ireki gero; niri ikaragarri gustatzen zitzaidan telesail hori, eta jakin nuenean Donostian eskola bat ireki behar zuela, apuntatu egin nintzen". Gustatuko litzaioke egunen batean irakasle izatean: "Nik uste eskolan gabiltzan guztioi gustatuko litzaigukeela egunen batean klaseak ematea; aukera edukiko banu noizbait, gustura egingo nuke lan hori".

World of Dance lehiaketan parte hartu duen taldeko irakasleak Ananda Berasarte eta Jhon Enciso dira. Beraiek landu dute txapelketara aurkeztu duten koreografia, eskolako zuzendari Eider Rodriguezekin batera. "Abesti batzuen zatiak aukeratu ditugu, ongi konbinatzen dutenak", azaldu du Encisok. "Koreografo bakoitzak zati bat egin du: Eiderrek, zoruko dantzak landu ditu; Anandak house estiloa; eta nik, berriz, afroa, ukitu basatiago bat emanez". Txapelketara joan baino bi hilabete lehenago hasi ziren prestatzen koreografia. "Naturari buruzko zenbait ideia transmititu nahi genituen", dio Encisok. Larrialdi klimatikoaren afera pil-pilean dagoen honetan, horri buruz hitz egin dute oholtza gainean. "Dantzarien alor basatia atera nahi genuen".

Konfiantza, ezinbestekoa

"Sekulako harremana daukagu taldearekin, erabateko konfiantza. Hori nabaritzen da eszenatokian", nabarmendu du Ananda Berasarte irakasleak. "Beti transmititzen diegu dantzariei ideia bera: 'Denok zarete garrantzitsuak, eszenatoki aurrean edo atzean egon'. Eta egia da, denon artean lortu dugulako horren maila ona eman eta txapelketako finalera sailkatzea".

Ordu eta egun asko pasa dituzte koreografia prestatzen. "Nekatuta bukatu dugu, baina merezi izan du", aipatu du Condek. "Lantzen ditugu teknika, koreografiako urratsak, taldekideen arteko koordinazioa...baina baita alor fisikoa ere, adibidez; funtsezkoa da emanaldiko lau minutuak ongi agoantatzea", azpimarratu du Berasartek. "Dantza baino askoz gehiago da". Eskolako zuzendari Eider Rodriguezek gehitu du gorputzaren atalak kontrolatzen ikasteko teknikak ere irakasten dituztela Bamboo Dance eskolan. 2009an ireki zuen, eta 500 bat ikaslek hartzen dituzte klaseak gaur egun.

World of Dance txapelketan lehiatzen ari diren dantzari lasarteoriatarrek hemezortzi, hamazazpi eta hamalau urte dituzte. Ananda Berasarte eta Jhon Enciso irakasleek, berriz, 23 eta 22, hurrenez hurren. Lezio bat ikasi dute txapelketan parte hartu bitartean: euren buruei erakutsi diete "edozer egiteko gai" direla, Encisoren hitzetan. "Sekulako energia eman digu sailkapenak, lanean jarraitzeko". Ongi etorriko zaie grina dosi hori, Eguberrietako emanaldia prestatzen ari direlako. Asteburu honetan ariko dira. Datorren urtean eskainiko dituzte dantza eta koreografia gehiago.

Esan bezala, World of Dance txapelketako finala datorren urteko abuztuan jokatuko da, Los Angelesen. Ekitaldi horretan parte hartzeak ekarriko dizkien gastuak finantzatze aldera, babesle eta laguntza bila ari dira, bigarren postuan geratu eta txartela lortu zutenetik. "Lasarte-Orian ere egingo ditugu ekintzak; kamisetak jarriko ditugu salgai", adierazi du Oihana Condek. "Inskripzioak berak 200 euro inguru balio ditu dantzari bakoitzeko. Gehitu horri bidaia, egonaldiko gastuak...", zehaztu du Berasartek. Dantzarien gurasoak ere hasi dira mugitzen dirua lortzeko. Zorro hori ez dute guztiz bete oraindik, baina bai euren mugak gainditzen jarraitzeko ilusioarena.

OIHANA CONDE, ENEKO MARTIJA ETA ARITZ CARRASCO DIRA HERRIKO DANTZARIAK

Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da. Iritsi den etorkizuna.

GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

KOMIKIA

ZORION AGURRAK

Izar
Zorionak zure 7. urtebetzean! Ondo pasako dugu denok! Maite zaitugu amona eta guztiok.

Aran
Iritsi da zure 2. urtebetetzea!! Zorionak goxoki!! Paaaaaaa!!

Laia eta Erik
Zorionak bikote! Muxu potolo bat aita, ama eta familia osoaren partetik! Zorionak!



Arkaitz
Zorionak zure amaren partetik. Oso ondo pasa zure 19. urteurrena.

Nerea
Zorionak bihotza. Primeran pasa zure eguna eta jarraitu hain zoriontsu izaten. Asko maite zaitugu!!

Arkaitz
Zorionak aitaren eta familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu. 19 muxu handi.

Unai eta Gorka
Zorionak gure bilobei, oso zoriontsu izatea opa dizuegu! Zuen aiton-amonen partetik, Pepi eta Alfredo, muxu asko!

Jokin
Zorionak Anunnaki! Talo eta txistorra artean ospatuko dugu, sagardoarekin txin txin eginaz! Gora Santamas!



Oier
Aupa txapeldun! Segi horrela!! 14 muxu potoLOUH!!!

JAIOTAKOAK

Umme Ayesha Khan Begum. Azaroaren 19an.
Fatima Khan Begum. Azaroaren 19an.

HILDAKOAK

Pilar Rios Ruiz. Abenduaren 18an.
Luis Ostiategui Bañuelos. Abenduaren 18an.
Juan Iñigo Pérez. Abenduaren 18an.
Palmira Morón Garduño. Abenduaren 18an.
Eusebio Zubillaga Echaiz. Abenduaren 16an.
Bernardo San Sebastian Zubillaga. Abenduaren 16an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 20	GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 21	DE MIGUEL
Igandea, 22	DE MIGUEL
Astelehena, 23	ORUE
Asteartea, 24	URBISTONDO
Asteazkena, 25	URBISTONDO
Osteguna, 26	GIL
Ostirala, 27	GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 28	LASA
Igandea, 29	LASA
Astelehena, 30	LASA
Asteartea, 31	ACHA-ORBEA
Asteazkena, 01	ACHA-ORBEA
Osteguna, 02	DE MIGUEL
Ostirala, 03	LASA
Larunbata, 04	URBISTONDO
Igandea, 05	URBISTONDO
Astelehena, 06	URBISTONDO
Asteartea, 07	ACHA-ORBEA
Asteazkena, 08	GIL
Osteguna, 09	GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00 ABENDURAINO
Aldabe:
Perkaiztegi kalea 8 (Antziola), Hernani
943 33 60 22
URTARRILETIK AURRERA
Urrutia-Martin:
Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani
943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

SUDOKUA

	4		8	7		6	3	5
		3			1	7		
7		8	5		3	9	1	
	2				6			3
	8		9			5		
		4		3	5		2	
4	7			1		3		
1	9		3	5	8	2		
8							5	6

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 20
Min. 10º Max. 16º

Larunbata, 21
Min. 10º Max. 18º

Igandea, 22
Min. 11º Max. 16º

Astelehena, 23
Min. 11º Max. 17º

Asteartea, 24
Min. 12º Max. 19º

Asteazkena, 25
Min. 11º Max. 18º

Osteguna, 26
Min. 11º Max. 16º

OHARRAK

Jaiotzen lehiaketa

Danok Kide elkarteak antolatzen duen Jaiotzen 27. lehiaketako lanak aurkezteko azken eguna gaur, abenduaren 20 da, 17:00etatik 19:00etara, elkarteko egoitzan –Blas de Lezo 11-13–.

Udala itxita

Lasarte-Oriako Udalak jakitera ematen du, Eguberrietako eta Urteberriko zubiak direla-eta, udaletxea jendaurrerako itxita egongo dela abenduaren 23an, 24an, 30ean eta 31n.

Kiroldegia itxita

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakitera ematen du, abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1 eta 6an Kirol Instalazioak itxita egongo direla. Urtarrilaren 5a igandea, ohiko goizeko ordutegia egongo da.

Odol ateratzearen egun aldaketa

Gabonak direla eta, odol emaileen hitzordua egunez aldatuko da hilabete honetan. Ostirala, abenduaren 27an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era.

Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

San Silvestre trafiko mozketa

San Silvestre lasterketa dela eta, abenduaren 31n 15:45etik 17:00etara Kale Nagusia eta Gipuzkoa etorbidea itxita egongo dira. Oria etorbidea eta Kale Nagusia batzen dituen biribilgunetik Atsobakarreko biribilguneraino izango da mozketa.

Bide alternatiborik ez dagoenez gero, autobus-zerbitzua eten egingo da.

Ostadarrek hasi du bazkidetza kanpaina

2020. urteko bazkidetza kanpaina hasi du Ostadar SKTk. Hainbat kuota dituzte, adinaren arabera. Kirol proiektua laguntzen dutenek hainbat abantaila eta deskontu dituzte Ostadarren ekitaldietan. Informazio gehiago *www.ostadarskt.eus* webgunean.

Manttangorriren zerbitzu bereziak

Manttangorri autobusak Santo Tomas egunean eta Eguberrietan zerbitzu bereziak eskainiko ditu herritarren mugikortasuna errazte aldera.Abenduaren 21a eta 28a larunbatak, eta 29an izango dira zrbitzu bereziak.

Egun horietan Mattangorri Antxisu bailaratik aterako dira honako orduetan: 11:00, 11.30, 12:00, 13:00, 13:30, 17:00, 17:30, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30 eta 20:00.

AZOKA TXIKIA

ESKAINTZA

Pertsona bat behar da bi lagunentzat janaria prestatu eta garbiketa egiteko. Astelehenetik ostiralera, 06:00etatik 09:00etara. Harremanetarako zenbakia, 943 373 706.

ESKARIA

Pertsona helduak zainduko nituzte orduka, edota interno gisa. Harremanetarako zenbakia, 649 712 158

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest . Harremanetarako zenbakia, 606 661 048.

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 648 243 984.

BESTELAKOAK

Baserritar jantzia beharko nuke, 2 neurrikoa, neska txiki batentzako. Harremanetarako zenbakia, 688 667 982.

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ **Jaiotze data:** _____

Helbidea: _____ **Herria:** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

☐ *Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez*

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkidetzak irauten duen bitartean edota betebehar legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonei eskainiko betebehar legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektroniko bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkidetzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LASARTE-ORIA Olentzero eta Mari Domingiri harrera. Ehunka lagun izango dira Olentzero eta Mari Domingiri harrera egiteko prest. Xixuko, Porrotx, Maritxu-teilatuko eta hainbat gizaki mitologikoren laguntzaz Loidi Barren pilot alekutik Okendo plazarako bidea egingo dute. Ekitaldiaren ostean, eskutitzak jasoko dituzte. Eguraldi txarra egingo balu, Loidi Barren pilotalekuan izango litzateke ekitaldia.
Asteartea 24, egun osoa.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

La oveja Shaun: Granjaguedon
Igandea: 17:00.

Pequeñas mentiras para estar juntos
Igandea: 19:30.

Joker (JBGA)
Ostirala 27: 22:00.

Animales en apuros
Igandea 29: 17:00.

Joker (JBGA)
Igandea 29: 19:30.



OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA Antzerkia
Zaldi urdina Artedrama, Axut! eta Dejabu antzerki taldeek elkarrekin sortutako proiektua da. Droga eta honen menpekotasunari buruzko lana aurkeztuko dute. Sarrera, 5,50 euro.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Musika
Alboka Abesbatzak ohitura denez Gabonetako kontzertua eskainiko du. Aurten Irungo Nayade ahots zurien abesbatza gonbidatu du emanaldian parte hartzera.
Ama Brigitarren komentua, 20:00etan.

LARUNBATA 21

LASARTE-ORIA San Tomas
San Tomas azoka egingo da. Talo, gaztain eta sagardo dastaketa, elkarte eta Oriarte Intitutuko gazteen postuak, haurrentzako tailerrak eta txerria ikusgai izango da:

17:00etan, azokari hasiera emango zaio.

17:30ean, Oriarte institutuko gazteek antolatutako Bingoa.

18:00etan, Xumela korua Okendotik aterako da erdialdeko kaleak alaitzera.

18:30ean, Ttirriki-Ttarrakaren doinuak dantzatzeko aukera izango da.

Ostean, Plaza dantza saioa egingo da, Erketz Dantza Taldea eta Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideak izango dira bertan.

20:00etan, Oriarte institutuko gazteek antolatutako Bingoa.

Jarraian, Oraintxe in deu! txarangak kaleak alaitu ditu. Eguraldi txarra egingo balu, Loidi Barren pilotalekuan egingo da.
Okendo plaza, 17:00etan.

IGANDEA 22

LASARTE-ORIA Haur parkea
Gabonetako Haur Parkea irekiko da, abenduaren 31ra arte. Oriako pilotalekuan eta Zabaletakoan ere gunea izango da.
Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ASTELEHENA 23

LASARTE-ORIA Tailerra
Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera prestatzeko tailerra egingo dute Gazte Klubeko lagunek. Lamia, Basajaun, Basandre, Mariteilatuko, Sorgina edo Tartaloz mozorrotzeko prestaketa tailerra egingo dute.
Osasun Zentroko eraikina, 2. solairua, 11:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Erakusketa
Presoen ipuinak erakusleihotan ekimenari hasiera emango zaio. Presoek haurrentzat idatzitako ipuinak erakutsiko dira hainbat erakusleihotan. Harresi Guztien Gainetik taldeak antolatua.
Hainbat dendatan, egun osoa.

ASTEARTEA 24

LASARTE-ORIA Gabon errondak
Ohiturari jarraikiz, hainbat elkarte eta taldek Eguberri bezperako erronda egingo dute herritarrak alaituz:

11:00etan, Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gazteak, gurasoak kantuan aterako dira Ttirriki Ttarrakako kideek lagunduta, Jaizkibel plazatik abiatuko dira.

10:00etan, Zabaletako bizilagunak, berriz, abiatuko dira Antonio Blas plazatik. Auzoko etxe eta baserriak bisitatu ostean, 12:30ean auzoan aurten jaiotako haurrei ongi etorria egingo diete. Erketz Euskal Dantza Taldea baserrietatik joango da.

16:00etatik aurrera, Alboka abesbatzak ere egingo du Gabonetako urteroko erronda.
Lasarte-Oria eta inguruak, egun osoan zehar.

LASARTE-ORIA Xixukoren postontzia
Xixukok postontzia jarriko du lehenengoz Okendo plazan. Honez gain, txokolate jana izango da haur eta gaztetxoentzat.
Okendo plaza, 12:30ean.

LASARTE-ORIA Harrera ekitaldia
Lasarte-Oriako kaleetatik kalejira egin eta Okendo plazan Olentzero, Mari Domingi eta Xixukoren etorrera jaialdia egingo da. Ondoren, haurren eskutitzak jasoko dituzte.
Lasarte-Oriako kaleak, 16:45ean.

OSTEGUNA 26

LASARTE-ORIA Haur antzerkia
Espien eguna, Tomax pailazoaren abentura berria ikusi ahalko dute etxeko txikiek. Sarrera, 3,80 euro.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Tailerra
Gazte Klubeko lagunek koadernoak egiten ikasiko dute. Izena ematea, Ttakun kultur elkartean, *aisia@ttakun.eus* helbidean edo 695 785 392 zenbakian.
Osasun Zentroko eraikina, 2. solairua, 11:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Musika
Giltzapeko ahotsak askatzen poesia musikatu saioa eskainiko dute herriko hainbat taldeek. Presoen hitzetan oinarritutako lanak aurkeztuko dituzte. Harresi Guztien Gainetik taldeak antolatutako ekintza.
Jalgi kafe antzokia, 19:00etan.

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Sari banaketa
Danok Kidek antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketako sari banaketa egingo da.
Danok Kide egoitza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Musika
Ariane Nsilulu eta Shine Gospel taldeak emanaldia eskainiko du. Gospel berriaz gain, jazza, soula, Guadalupeko gwo ka afrikar-karibearra eta reggae musika uztartzen dituzte haien abestietan. Sarrera, 12 euro.
Manuel Lekuona, 20:00etan.

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Musika
Osi Martinezek eta Javi Suarezek blues kontzertua eskainiko dute.
Jalgi Kafe antzokia, 19:00etan.

ASTELEHENA 30

LASARTE-ORIA Tailerra
Gazte Klubeko lagunek koadernoak egiten ikasiko dute. Izena ematea, Ttakun kultur elkartean, *aisia@ttakun.eus* helbidean edo 695 785 392 zenbakian.
Osasun Zentroko eraikina, 2. solairua, 11:00etatik 13:00etara.

ASTEARTEA 31

LASARTE-ORIA Mobilizazioa
Presoen etxeratzea eskatzeko manifestazioa egingo da
Okendo plaza, 19:00etan.

LARUNBATA 4

LASARTE-ORIA Txu-txu trena
Lasarte-Oriako kaleetan barrena txu-txu trena ibiliko da. Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak antolatua.
Lasarte-Orian zehar, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Errezitaldia
Zubiak eraiki sormenari errezitaldia egingo da euskal presoen testuak oinarri. Poesia, antzerkia, musika... denetarik izango da X. edizioan. Harresi Guztien Gainetik taldeak antolatua.
Manuel Lekuona, 19:30ean.

IGANDEA 5

LASARTE-ORIA Errege Magoak
Meltxor, Gaspar eta Baltasar Lasarte-Orian izango dira. Eguerdian, Errege Magoen laguntzaileek haurren eskutitzak jasoko dituzte. Arratsaldeko 16:15ean iritsiko dira herrira Errege Magoak, eta 17:30ak arte, Brigitarren Komentuko kaperan egongo dira eskutitzak jasotzen. Ondoren, 18:00etan, kabalgata hasiko da herriko kaleetan barrena.
Lasarte-Oriako kaleak, egun osoa.

RPS 181/19

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

TITANIOZKO INPLANTEETAN PROMOZIO BERRIA
ETA %15eko DESKONTUAK PROTESIETAN

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales

ELGOIBAR · LASARTE-ORIA ·TOLOSA

943 36 63 77